EGUNA JEL

Euzkadi'k, bafuan eta kanpuan dauz areyuak. Gaiztoenak, bafuko areyuak dira.-Au eztogu aztu biar.

Lgo. urtia | 69'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. epaila 2i'gna. igandea | 15 euneu

Belgika'ren erregea Londres'era joan aurretik Hysmans ministrua Eden'egaz jardun luzetan ibillia da

ZER ERRABILLI ET. DABE POLITIKO ONLIK?

Belgica'ko erregia, Leopoldo I'gna.

DIPLOMAZI-BIDE

: : : IXILLAK : : :



MR. HYSMANS

Londres.—Eden eta Hysmans, belgikar erbeste arazuetako ardurea daben ministruak izketaldiak izan dituela c'-ñoe izpafingiak. Izketaldion bafi inortxok ez dekl, ordea, eta ezta Hysmans Londres'era eldu danik be.

⁂

Paris. — Belgica'ko I'gn. Leopoldo erregea atzo atera zan Inglaterra'ra.

Londres'en egongo da eguen-arte ta geuzean atzera Belgica'ra biurtuko da.

Inglaterra'ko VI Jorge'ren erege-bureskundea dala-ta, egiten dau Inglaterra'ra ostera.

Belgica'ren eta Inglaterra'ren artean egiten diñarduen itunbenaren gututxu batzuk be, atonduko dauz egunotan Londres'en.

Ingeles erege-jayetara

Negus'ek ordezkaria bialduko dabelako Mussolini'k ortzak erakutsi nai

Negus'a oraindik Abisini'ko buru uste da.-Inglaterra'k ofelaxe uste dau.-Mussolini'rentzat ostikada edefa izan da Inglaterra'ren jokabide ori.

Paris. — Inglaterra'ko Gobernua'k Negus'eri berofen ordezkoa bureskunde jaietara bialdu egiala esan eutson. Negus'ek ordezkoa jai ofeitara bialduko dabela aitzen emon dautso Gobernua'ri.

Italia'k ori jakin dabenean bereonen ordezkaririk ez dauala bialduko azaldu dau.

Haile Selassie'k aitzen emon dabenez Abisinia'ko ordezkari jai ofeitan mister Tarifa izango da.

Arafiegun Foreing Office'n Grandi'k aitzen emon eutson Eden'eri Italia'ren asmuaren bafi.

Miloiak -miloiko kontrabandua

Budapets. — Miloiak-miloi balio duan kontrabandua igarotzen arapatu dituzte Ertzaiñak amaika lagun.

Clichy'ko jazokunen ondoren Paxismoaren gain zindoki eta garaille aginduteko adore eta Kemenik izango ete dau Blum'ek?

Politiko alderdiak - - - - - ten-ten. Kesta eta urduritasun ugari.

⁂

Paris. — Clichy'ko gertatutakouren negargafikeriari ezezkafi iritzi ondoren, politiku-batza guztien jaik'-aldiak afo-efotik amaitu-erazotzeko geftu dagola azaldu du Blum jaunak. Legezko botzai, baiña, batzafak egitea galerazotzea gaitz xamafa dala gaiñeratu du.

Jacques Duelos, komunista, ezkertaren delegazioko buruak "Liga" edo dirakkoak bastertzea eskatu zuan. Epai arazoa baiño goragoko mallako dala politika bidea, gaiñeratu zuan. Aldunetxeko politik - derdi guztien aurean itz egingo zuala agindu zuan Blum jaunak eta buruz jokatzeko jakin-erazo alderdikide guztiai.

MR. BLUM

IRITZI GARRATZA

Erri arteko bakearen etsairik andiena Hitler dogu

Ditadura-jaurkerak poto egiteko afiskuan dagoz. - Efi bafuko egoera bafia atondu ala atzefira gudan joan beafa.-Alemania'ri koloniak emon afen, bakerik ez.

Nueva York. — Arafiegun Nueva York'era zan Harold Laski, Londres'ko Ikastola Nagusia'n Politika-Legedi'ko Irakasle danak, oraingo mutasa ta goraberei buruz mundu au zoro-etxe bat dala esan dau.

Zeintzuk Estadu edo Lateffik efazoia dauken eta bakea zelan sortu daiken eztabaidaka ibilj ondoren esan eban ori Laski jaunak. Irakasle ori laborista-alderdikoa da.

Europa'ko Lateffi edo Estadu askaltzaleen etorkieunarj buruz itzaldi batzuk egingo dauz. Gudarik sortu ez ba-daike etorkizunoi ona izango dala diño.

"Askaltzaleej kaltegafi, be, kaltegafi yakoe gefea. Gudea jrabazteko Estadu batek Agintaritza bakaf eta sendoa beaf-beafeko dau; bestela gudarik ezin irabazi daike.

Europa'ko Gudatea'k azkaltzaletasun edo demokraziari akats aundia egin eutson eta ditadurei sorbide izan yakoen.

Agintaritza-bakafdun edo ditadoredun Lateffa'k igon beaf eben mailara igon dabe ta orain erbestean gudan fartu edo euren muga-bafuetan lanean ekin beafak jo dauz.

Aldi onetan munduko bakeak dauan galbiderik aundiena Hitler ei-da. Gefarik, Alemania'ko nazitaf Nagusiok nai ez izatea, ba-daike, baiña gefarik bage lortu ezin daikenaren bila dabil.

Inglaterra'k Alemania'n lenengo erasoa berari emongo dautson bildurik dauko, baiña Alemania'k beste nazioren bat sortu daike ta Inglaterra gudatzera beartu, 1914'gn. letz.

Bada-ezpadan Inglaterra guda-izkilua ondo orniduko da, ofefarako dirutza aundiak eralgi beafa izango dauanaren.

Lateffi-Batuota'n zeiñen obake edafetan bizi zaran ezdakizue. Europa'n zeaf ba'zenbiltz, ikusiko zendukee



Hitler afeputsa, Queipo'ren laguna.

efitafen eta lateffien artean zeinen goroto zitala ta bufuka-gogo nazkagafia dagozan. 1913'gn. urteko gisan gagoz. Lateffi-Batza'k ezer, be, ez diu egiten; azkenez gudea sartu beara tzango da bufuka-zaletasunoi moteldu ta amaitu daiten.

Efitafak, Gobernuak gefarik ez dabe nai; baiña gudeofek sustaf aundiak dauz ta tinko dago Bake-zale agerizen diranafen azalez, guda-izkiluz zein baiño zein obeto ornidu dabiltz. Guda-izkilu-geitzeak, guda-bilduña sortzen dau; guda-bilduf ofek, alkafen kezkatan ipinten dauz Lateffiok, kezken ondoren atxumurkadak datoz, gero ba-daokak eta azkenez

(Bigafen ingozkian dafai.)

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Korta jaunaren illetetan Agiŕe ta Leizaola jaunak.-Ikastolak edegiaz.-Urten dira 450 ume Oleron alderantz. Legeak lege, diñoe Langintza'n.-Aŕkatza banandu da'e eŕietara.-Sats egilleai eta saltzalliei agindu zeatzak. Biar, azken eguna, azitarako pataten agiria artuteko.

Ereiteko patatak

Azitarako patatak pasoteko baimen agiriak artu ez dituenak, astelenean, goizeko bederatzi ta erdietatik auŕera Zaingo onetara erdu beitez agirion bila.

Egun oŕetan artu ez dagiezanak, eskubideak galduta izango ditue, eta eskabideak osoro alpeŕeko.

Azkenengo deya dogu ba, onako aune.

Sats eta zimauŕak

Satsen saldu-erosiatzaz, oraingo jagoerak bide dirala erabagiak artu beaŕen da Zaingo au.

Satsak diran kimika-gai egiliak eta etxeak, Gobernu onen ardurape dagozan luŕaldetan, Nekazaritza zuzendaritza nagusira astero igoŕi bearko dabe daukezan gai ugalkoŕen eŕeskadak.

Baita satsak salduten dituezan dendari guztiak be, astero bearko dabe biali, daukezan eta saldu dituen gayen eŕeskada agiriak.

Pilaka ez begi iñork saldu satsik, zuzendaritza onen baimen baga, eta ezta Euzkadi'ko Gobernu meupetik kanpora eroan.

Saltegi andietan norbere premiñetarako satsa erosi nai daben lugin edo nekazariak, baimen eske eldu bekigez. Eskarian, luŕaldea zer nolakoa dan, zer ereiten daben, satsa zelakoa eta zenbat beaŕ daben argi ta garbi adirazi begie. Gayok non erosi nai dituen be bai ganera.

Eskari oŕek bakoitzaren eŕiko Udaletxera eroan begiez. Alkateak, aztertu ondoren eta ontzat artu, berak igoŕiko ditu Zaingo onetara.

Bilbao'n, 1937 epala 20'gn.

Idazkari nagusia.

Ageŕaldiak

Ikerle asko eldu ziran atzokoan Zaingo onetara.

Garai, Malabi, Orozko, Bilaro, Axpe-Marzana, Eibar eta Arbazegi-Geŕikaitz'eko Udalak.

Zeanuri'ko alkatea, Batallon Disciplinario, San Salvador del Valle'ko abere-jaubeen alkartasuna, Galdames'ko meaztegiak, Orozko'ko esnedun-alkargoko lendakaria, Bermeo'ko Agiŕe olako ordezkaria, Pradera'taŕ Andoni, Guda-Osasuntza, Deusto'ko Banakari batzaŕ burua, "La Conchita", baltzua; Sodupe'koa, eta Basauri'ko Euzko Alkartasuna.

Langintza

Ikeŕak ugari. Zaingoak emandako aginduak ausi dituzten saltzailleak

Langintza Zaingo'ko idazkari nagusi Santines jaunak ikeŕak, ugari ere, ugari zituztela esan zigun. Beste gaŕantziko izpaŕik ez zuala gaiñeratu zigun. Ori bai, ikeŕak ugari.

"Idazkaritzan, Zaingo onek emandako aginduak ausi dituztenen izen-leŕokada emango dizute.

Tamala da, baiña—jaŕaitu zuan—zigoŕa-zigoŕ erabili beaŕa izango da.

Izen-leŕokada ortan badira oraindik oletako beste nagusi batzuk ere. Danai leporatuko diegu merezi duten zigoŕa."

卐 卐 卐

Ona emen erañegun, 19'gnez., saltokiak itxi ta agindu-austearen ondorenen jabe egin diranen izenak:

Ronea, Marques del Puerto'n; Manzanos Etxea, Colon de Larreategi'n; Arlakoz, Portila ta Blanco, Henao, 10'en; La Violeta, Mazaŕedo zabalean; Sarasketa, Hurtado de Amezaga'n; Abaskal, Lutxana'n; Cafes Toledo, Hurtado de Amezaga'n; Estudios, San Francisco'n; Singer Etxea, San Francisco'n; Dos Mundos, San Francisco'n; Claux Ordularitegia, Ribera, 2'en; Aŕegi'ren alarguna, Tenderia'n; Zeaŕa'taŕ Rupen, Tenderia'n; Zeaŕa'taŕ Joseba, Somera'n.

Cecilia ta Romana oskitegiak, Somera'n; Eguren'daŕ Kauldi, Somera'n; Garcia'taŕ Maxima, Maria Muñoz, 2'en; Egia Margola, Sonbrereria'n; Paris Margola, Victor'en; Photo Club, Bidebaŕieta'n; Uriguen'daŕ Dotxao, Arenal'en; Arteta, Libertad'en; El Convenio, Plaza Nueva'n; Merkiena, Plaza Nueva'n; Alkar, Plaza Nueva'n; Imaz, Viuda de Epaltza'n; Moronati, Viuda de Epaltza'n; Bañales'taŕ Paustina, J. Luis Goyoaga'n (Erandio); Ituarte'taŕ Jaione, Jado'n, 13'en (Erandio); Mitxelena'taŕ Amali, Obieta'n (Erandio'n); Gezuriaga'ren alarguna, Obieta'n (Erandio'n).

Gutierrez'daŕ Eloy, Arturo Campion'en (Barakaldo'n); Kuarlan'daŕ Joseba, Fueros'en, 19'an (Barakaldo'n); Laŕotxa'ren alarguna, Fueros'en, 13'an (Barakaldo'n); Hernandez'daŕ Primitivo, Fueros'en (Barakaldo); Altube'taŕ Baldomero, Fueros'en, 19'an (Barakaldo); Herrero'taŕ Imanol, Erkalaren Enparantza'n (Barakaldo'n); Madrazo'taŕ Joseba, S. Elkano'n (Barakaldo'n); Leon'daŕ Laurentin, Florida'n, 1'en (Barakaldo'n) Armentia'taŕ Augustin, Juan de Garai'ren (Barakaldo'n), eta Martinez'daŕ Estanislao, A. Euzkadi'n, 22'en (Barakaldo).

Iritxi gaŕatza

(Lenengo ingozkiko jaŕaipena.)

gudea, buŕukea." Oŕa Laski'ren jarduna.

Gero Laski'k azaldu ebanez Europa'ko bakeari eusteko Inglateŕa'k koloniarik ez dautso emongo Alemania'ri.

"Kolonia batek—jaŕaitu eban Laski"—Alemania'ri ez leuskio emongo entzuterik eta bere burua agertzeko nai-adiñako biderik koloniak Lateŕia'ri diru-geipide barik diru-eralgipide yakoz. Koloniak ez damotsoe bizibide oberik eŕitaŕei. Gizon bakan eta domudunai bai, ba-yakoez irabezpide koloniak eta eskuartedunon irabazpideak dirala-ta, irabazpidedunak koloniei eustea nai izaten dabe."

Zuzentza ta Gogoiańizca

LEIZAOLA JAUNAREN JARDUNAK

Atzo betiko orduan Leizaola jaunagana joan giñanean Taramona jaunagez egoan. Ala ta be poz-pozik aŕtu ginduzan eta goizean Bingen deunaren eleizan izan zala esan euskun, Korta'ren aldeko iletetan.

Guda oŕetako baŕi onak eukozala esan eban.

Eta gejtu eban:

Euzkadi guztian ikastolak zabaldu daitezan lanean nabil. Basaŕietakoak zabalik dagoz eta "nazionalak" diran asko zabalik geratu dira.

Lenengo irakaskintzako ikastolarik geyenak, Bilbao'ko ibai ertzean eta guda-ekuetan izan ezik, zabalik dagozala esan leī.

Euzkadi'ko egunerokuan agindu auxe agertu da:

OROAGINDUA

Igazko urilaren 7'gaŕenez Euzko-Jaurlaritzat artu zuan erabakiak opa dizkidan eskubideak erabiliaz auxe agintzen det:

Lenengo atala. Igazko Uztajlaren amabostgaŕen eguna baño len, politika edo gizarte arazoak eragindа legea ausi zutelako nekalduta eta auzipetuta arkitzen diranei, barkapena opa zaie.

Bigaŕen atala. Lengo atalean ezaŕi dan eguna baño len, edozein inuetako edo gudaritzari buruzko lege-austeak dirala-ta, nekalduta eta auzipetuta arkitzen diranei ere, barkapena opa zaie.

Irugaŕen atala. Igazko Uztajlaren amabostgaŕena geroztik, Guda eta Itxas-Guda Auzitegiak eta Eŕi-Auzitegi Berezjak ezaŕitako epaipean daudenak, ezin gozatu dezakete Oroagindu Lege onen onurik. Ezta Erkalaren aurkakoak diralako, edo Erkalaren aurkako lege-austeak egin dituztelako, nekalduta, edo aitatu diran Auzitegien edo edozein Auzitegiren mende arkitzen diranak edo arki ditezkenak ere: aitatutako egunaren auŕetik edo ondoren eŕudun izan, berdin.

Orobat, mila bederatzireunda ogeita amalaugaŕeneko matxinada itotzen jardun ziralako, lege-ausletzat arturik arkitzen diranak, Oroagindu - Lege onen onuraz at izan bitez.

Laugaŕen atala. Oroagindu' onek opa dituan onurak ematea, Lege-Onumala Batzordean etengabean jarduten dan Zuzentza Sailaren esku izango da.

Bostgaŕen atala. Erabaki au, izan bedi indaŕean Agintaritzaren Egunerokoan argitaldua izango dan egunetik.

Osasun-zaingoa

Esnea beaŕ duten gaixoak

Biaŕ, astelenez, artezkaritza ontara etoŕi beaŕ diranak, 17.001'tik 17.300 zenbakidun arteraiñokoak dira.



Gizarte-Laguntza

Gracia arduradun jaunak esana
Emakuntza beŕiak

Atzo - goizean, Gizarte - Laguntzako arduradun Gracia jauna agurtu genduneean, auxe esan zigun.

"Gauŕ goizean ume guztiak batu dira Udaletxean, eta, Erkoreka'taŕ Ernesta endore jaunak guztiai edeŕ egin ondoren, 450 umeok Bermeo'rakoa artu dute belbiletan. Bermeo'tik, guztiak batera, aŕatsaldeko ordubietan Bayona'runtz aterako dira ta Bayona'tik belbil edeŕ batzuetan Oleron ugarte paketsura joango dira.

Asko ta asko erdu dira umeoi aguŕ egitera. Itzak, goxo ta xamuŕ; baŕuarizizta egin oi diotenetako aguŕa izan da.

Joate oni buruz—gaiñeratu zigun Gracia jaunak—paxistaŕak jaulkitako gezuai azala uŕatzea nai luke arduradun onek. Atzo bertan, umeok Riga'ra joango dirala orain eta Riga'tik Rusia'ra gero, esan zuten paxistaŕok euren iŕatetxetatik. Rusia'ra joango dirana, emengo agintariak esandakoa dala.

Munduak jakingo du zein dan egia eta paxistaŕok jaulkitakoa gezuŕ biribila dana.

Emakuntzak

Jean Jaures 48 gudalorokoak, 8 U. G. T.'koak eta Sozialisten Alderdiak, 211 lauŕleko; Garcia Nuñez'daŕ Eŕamon'ek, 25; Casa de Convalecientes'ekoak, 40; Erbois'taŕ Pantzezka'k, 25; Gorostitza'taŕ Joseba'k, 100; Astorkia'taŕ Koldobika, Bilbao'n dagon Holanda'ko Konsula'k, 100; Gudarien Umezurtz aldez, Gantxegi'taŕ Ermenejilda zanaren izenez, Garcia'taŕ Anselma'k, 158,55; Gudarian umezurtz aldez, Bizkai'ko Burni-Langile-Batza'k, 1.000; X.'daŕ X., 24.

Danetara: 1.683,55 lauŕleko.



Esku-zabal bat

Zaingo ontan ez zan atzo izpaŕ berezirik izan.

Eŕietan ikatza banatzen ziardutela esan zigun Atxa idazkari nagusiak. Banaketa ori poliki-poliki egitekoa ei-da ta amaitzen danean bertan, datoŕen astean, egingo dutela uŕengo banaketa.

Orniketako zuzendari nagusi Gomez Beltran jaunak emakuntza baten beŕi eman zigun. Kutxi'taŕ Endika jaunak Gizarte-Laguntzarako bialduta, eun lauŕleko jaso zituala.

Beltran jaunak ere ez zuan atzokoan beste izpaŕik.

Lendakaritza

AGIŔE JAUNA IKUSTEN

Atzo, lendakari jaunak ageŕaldi onetxek aŕtu zitun:

Leizaola jauna.

Stewenson Inglateŕa'ko ordezkaria eta umiak Oloron'era eruateko ziran ingeles ontzien komandantea.

Ume oneik Bermeo'tik aŕatsaldean urten ziran Donibane Loitzun'era, andik Oloron'era juateko.

Saleroskeata zaingoko Etxebeŕia jauna.

KORTA'REN GOGO ALDE

Basaldua jaunak esan euskunez lendakari agurgaŕia Bingen deunaren eleizan izan zan Korta'ren gogo aldeko elizkizunean.

Lendakariagaz batera Leizaola eta Toŕe jaunak izan ziran.

GUDA OŔETAN

Basaldua jaunagaz egon giñanean ezegoan oraindik guda-oŕetako baŕirik.

BILBAO'KO UMEAK

OLORON UGARTERA

Atzo atara ziran Prantzia'ko Oloron ugarte edo islarako asmoz laureun eta beŕogetamaŕ umetxu.

Aguŕ biozkoŕa egin dautse umeoi Bilbao'ko eŕitaŕak.

Umeokin osalari bi, amaŕ irakasle ta amabi anderaño, sukaldari bi ta lau sukaldari-lagun juan dira.

Aŕatsaldeko ordu bietan sartu ziran umeok itxasontzietara. Inglateŕa'koak dira itxasontziok.

Arañegun gabeko amaika ta erdietan Radio Verdad izeneko iŕatiak umeok Riga'ra eruazela, ortik gero Rusia'ra eruan dagiezan esan eban.

Amaika olako guzur biribil esan, be, egin dabe paxistok.

BILBAO'KO izparringijak diñuena

"Euzkadi"

Paxiotaŕak, euzkotaŕoi, goŕotua ta geltasuna, bijak batera agertuten dauskubezala diño.

Ixenpurutzat idatzi dauzan "Odio y admiración", Madrid'ko guda-oñian euzko gudarijen espe jausi ixan zan paxiotaŕ buruzagi batek oguzi ebazan itzak ei-dira.

Izpaŕingijetan eta agertuten ez ba dira be, ba, Madrid'ko guda-oñian azkatasun aldez paxiotaŕai oldaituten dautsen euzkotaŕak, aneika asko ei-dira.

Eta eŕijen eta gixonen azkatasuna aldeztuten Euzkadi ta Euzkadi'tik at edatu ixan diran euzkotaŕen ospia, ludi ziaŕ edatu ixan dala diño.

Eta ain zuzen be, zertxugaz be orbandu barik argi ta garbi ludi gustira edatuten dan euzkotaŕen ospia ei da paxiotaŕak senetik atara ta euzkotaŕok goŕotetan imiñi ixan dauzana.

Goŕotez beterik imiñi ixan dauzana ta gelduta imiñi ixan dauzana be bai.

Eta ezertxugaz be orbandu ez dan euzko-abeŕtzalien ospe ori ei-da paxiotaŕen guda ezeskaŕi au txaŕetsi ta gaiztesten dabena be; euren eŕiketa bidezko uskurtza-zaletasunak guzurtituten dabezana ta kista-rakatsi gustijen arerijo-antzo agertuten dabezana be.

Paxiotaŕen guzuŕezko uskuŕtza-zaletasunari bidera urtetan yakon erantzuna, auxe ixaten ei-da, ba:

"Zubek diñozuben uskurtza aldezko gudea, guzuŕezkua da. Eta zuben guzuŕezko zabalgunde ori guzuŕtituten dabenak, euzko-abeŕtzaliak dira, euren uskuŕtzaletasun zinzua ta abeŕtzaletasun zindua be, ezeren orban barik erakusten daben euzko-abeŕtzale kistaŕak."

Oŕa, oŕ, paxiotaŕen goŕotua sortuteko zijua, ta paxiotaŕak gelduta jarten dauzan abeŕtzaletasuna be.

Eurak, ba, ez bata ta ez bestia; abeŕtzaletasunik be ez dabe nabaitzen, ez da uskuŕtzaletasunik be. Eta eŕi ikasijak baño erakusten ez dabezan gauza bi oŕeik erakusten dabezan orija, goŕoto dabe, baña bai gelgaŕi be...

"Tierra Vasca"

Ekintza bako itz ugarijen aurka agertuten da izpaŕingi onen lenengo zeŕendako idazlana.

Gixonik argijenak agertu ixan dabezan jakingayak gixonen ezaupidera eldu teko gixaldijak gixaldi biaŕ ixaten dirala-ta, Baroja'taŕ Pi idazle trebiak, bein, aŕiñuta esan ei eban: luŕa igiñu egiten zala Copérnico jakiñunak esan ebanetik ona, lauren urte baño geyago igazi ixan dirala. Eta alan be, ludiko gixonik geyenen ustez, gu bixi garan luŕau igigia da, zirkiñik be egin barik geldi daguana.

Pi zuzen dagola diño, gixonen egirako iradurik esa alpeŕkerija bat dala ta

Geure ustia be orixe da: Pi idazlia zuzen dagola. Baña Pi bera be, Euzkadi'ren azkatasuna ezagutu biaŕ danian, atzera-samaŕ bixi ixaten dala esango geuke. Eta Euzkadi'ren ixatia Copérnico jakiñunaren irakatsijak baño antxiñagokua da. ¿Ezta, Pi?...

"El Liberal"

Madrid'ko gurendeatzaz deragoyo. Mussolini'ren gudaroztiak Guadalajara'n ixan daben ondatzia, eŕkaldaŕentzat, gurendarik gurendiena ixan dala agertuten dau.

Orain aŕteko eraso aldijetan aŕtu ixan ez dabenezkero, paxiotaŕak ez ei-dabe Madrid aŕtuko.

Franco etoyak boskaŕen oldaŕtze au, Mussolini'ren gudaroztiei egindu ixan ei-dautse. Lenengo guda-oñeratu ixan ebazanak, eŕeketiak eta palankistiak ixan ei ziran. Geruago, mairubak eta doistaŕak.

Eta azkenengoz Madrid aŕtzeko Franco'k Madrid-ingurubetaratu ixan dauzanak, italiataŕak ei dira, Mussolini'ren gudarijak. Eta ain zuzen be, azkenengo oneik ei-dira ondapenik aundijena aŕtu ixan dabenak.

"Lan-Deya"

Sendi-antsarijatzaz deragoyo.

Ugazabak langiliari atzipez emoten dautsana ez ei-da sendi-lantsarija, sendijak sendotuteko biaŕekua dan eustaŕija baño.

Guraso diranak, egin biaŕ askok lotuten dauz: seme-alabak alikatu, jantzi, ikastolara bidaldu ta abaŕ.

Eta guraso lez gurasuak bere gain aŕtzen dauzan egin biaŕ gusti oŕeik ondo betetako, sendi lantsarija biaŕekua yako.

Eta sendi-antsari ori, ugazabai lagunbidez kendu biaŕ yake. Bestela, euren gurarik, ez uste ixan iñoz emongo leukenik.

Gurasuak bere seme-alabak azteko biaŕ daben laguntasun ori, lateŕijak ala ugazabak emon biaŕ daben, ez geuke esango. Norbaitek emon biaŕ dabena bai, ori esango geuke.

Beraz, sendi lantsarija, biaŕekua da.

"Euzkadi Roja"

Eŕi aldezliak euren azkatasuna aldeztutiaŕen gudara urten ixan dirala diño.

Eta egi au agirijan imiñien dabena, Guadalajara'ko guda oñian egin ixan diran eta egiten diran gudaketa gogoŕak dirala, agertuten dau.

Guadalajara'n eŕi-aldezlien aurka gudatuten diran gudaroztiak, italiaŕak ei-dira, ta ez paxiotaŕak esaten dabezan espanaŕ abeŕtzaliak.

Azkenengo gudaketan aŕtu ixan daben zigoŕak, baña, Mussolini'ren gudaroztiak kikilduta jaŕi ixan ei-dauz.

Gudaketa oŕetan guda tokijan jausi ixan diran italiaŕ gudarijak asko be asko ei-dira, ba. Eta espe aŕtu ixan yakezanak be, 350 baño geyago.

Goŕijak betu al ixateko atzeritaŕ gudarijen biaŕik ez dabela ta guzuŕa ta abaŕa iŕadotsetatik edatuten dabiltzan paxiotaŕak guzuŕtituteko, baŕiz, eŕkaldaŕen menpe jausi ixan diran Mussolini'ren gudarijak ei-dira ziñaldaririk onenak.

"El Noticiero Bilbaino"

Euzkadi'ko euzko-oñetan aurkitzen diran gudarijak, agintarijak beste gauzarik agintzen ez dautsen aŕtian, euren lekubetan aurkitzen ei dira. Auŕeratuten ez badira be baña, erea dabenetan arerijuari oldaŕtu barik ez ei-dautse lagako.

Legutiano ta inguru aretako paxiotaŕal beñepein, guda-asi baŕijak egiteratuta, ez ei dautse lagaten. Areik lanian asten diraneko, euzko-gudarijen suagak gertetan ei-lira, ba, ta paxiotaŕen aurka berunbilak berunbil jaurti.

Euzko gudarijak auŕerantz egiteko gurari bixiz aurkitzen ei-dira. Euren guda-eskututokijetatik urten eta auŕera egiteko, agintarijen eupada bat baño beterik ez ei dabe biaŕ.

Joseba Deun Egunez Sondika'n

Sondika'ko Iruntzi Zelaiko (campo de Concentracion) agintariak antolatuta, jalaldi ikusgaŕi batzuk ospatu ziran Deun Joseba egunez. Goizeko zazpiterditan egundoko edeŕtasuna nabai zeikean Lafondo'ko konbentuan.

Euren burukideak auŕetik zituztela, Iruntzi Zelaiko ertzain guzjak Jaunaŕtzera mardoneratu ziran. ¡Ura goizaren zoragaŕia! Ura edertasuna!

Amarterditan meza nagusia izan zan, eta goiz partean bezelaxe, eleiza gudariz bete bete eginda ikusi zan. Gudari auen aŕtean bada abeslari bikañik. Oso goieneko urten zuan abesbatzak. ¡Ura mezaren edeŕa!

Eguardian, Abando'ko txistulariak, egundoko erestaldi bat jo zuten Iruntzi zelaian. Entzun zuten txalo edeŕik.

Zorionak jai auen antolatzale, Elizalde, Galastegi ta lagunai.

ATXUKARO.

Mañari

AGUŔTU.—Larunbatian aguŕtu genduzan emen Etxezaŕaga'taŕ Bingen, "Zidoŕa", euzkel-idazle trebia, ta Aŕegi'taŕ Danel, Lemona'ko abeŕkide zintzua. "Zidoŕa" zintzuagaz izketaldi onuratsua egin gendun; berak ba, beti lez, abeŕijatzaz edeŕto baten itz-egin euskun eta.

Astartian aguŕtu genduzan baŕiz, Arana'taŕ Iñaki, "Ibaizabal" gudaloroko komandante zuŕa, Erauskin'daŕ Koldobika, "Iñaki San Miguel" gudasaleko gudari eŕimia ta Sañenandia'taŕ Joseba Mirena abeŕkide zintzua.

IL OTOITZAK. — Igande aŕatsaldian eta astelen goxian Lete'taŕ Miren emakume zintzua zanaren gogo aldez il-otoitzak egin ziran. Elizkixun oŕetan, emeko emakumiok, aizkide on oña genduanaren gogo aldez gogo beroz eskatu gendun.

Goyan bego gure Mirentxu kuttuna.

ELIZKIXUNAK. — Joseba Deuna'ren egunian asita, emeko elexan, urtero ospatu oi dan iru uŕena edo "mixiñ-txikija" egingo da. Aurten, itzaldijak, bertako abadiak egingo dauskubez. Entzun biarko dogux entzutekuak...

Egunokaz, gure neskatuak, mixiño-abestijak ikasten, buru ta bijotz diñardube. ¡Gastetxuen ekiña oŕetan! Gu be bagiñiala baña, oneik zatijaz pasetan gaitubez. ¡Egeno!

EZTIJA.—Eztija ataraten lengo astian asi ziran. Aurten uŕitxo dago; igaz baño be gitxiago dago-a. Ezti gustijak, dan orduko saneuŕi onian saldu dira.

Aldi-onetan olako gauza gozoa jateko oŕalik, eskuan dirua dala bizkoŕ-bizkoŕ ibili biaŕ da...

"Eztija ezti ta berba gozua gozo."

GURE GUDAŔIJAK. — Etxanobe'taŕ Sabin eta Ortuoste'taŕ Justa, "Santxo Ez tegi" gudasaleko gudari begikuak, euren sendijak ikertuten egon ziran. Pozik agertu ziran, eta zer kontau ekaŕi eben...

GEXUAK.—Uriarte'taŕ Aurkene neska totxu bakuna, egunontan gexorik aurkitzen da Osasuna opa.

Amantegi'taŕ Lon abeŕkide zintzua bere gexoan oberantza eginda ogetik jagiten asi da. Poztuten gara ta osasun osua opa dautzagu.

JENTIA BIZKOŔ.—Eguraldi onagaz, jentia, soluetan eta abaŕ, lanian zintzo zintzo diñardube. Patxiko sakristauaren soluan be, egubazten aŕatsaldian, lusagaŕa (patatia) ereiten sekuleko lagun pilua ibili zan. Sabintxu, Patxitxu ta abar ¡ango jentiaren jentia! Eta, aŕitzekoa... zuri naiz baltz, danak etxerako moduen zintzo-zintzo ibili be... Euren aŕtian "geŕi-artez" bat be ikusi gendun...

Bixi bagara ta begirik badogu, zelako patatak egiten diran ikusiko dogu.

Esakuna: "Ereite onak frutu ona, aldijak dakaŕ bere ona."

Mañariko

Gernika

JAYOTZA.—Areitzaga'taŕ Imanole to losaŕ emakumeak eta Basteŕika'taŕ Joseba Mirena'ren emasteak alabatxu edeŕ bat ekaŕi dau.

Ume jayopaŕijaren aita Asturias'en aurkitzen da, "Amayur" gudataldean eta iz paŕ onen bidez bere alabatxuaren jayotza izpaŕ begikoa damotsegu.

ABEŔI EGUNA.—Geure Uri Buru Batzaŕa be, Josu Berbizkunde egunean egingo dira abeŕi-aldezko jayak eratuten dogu.

Beiñepein, goizean jaupa nagosia eta aŕatsaldian pelota tokian abeŕkoi jai edeŕ bat izango dala dirauskue.

Aŕatsaldeko jai onetan geure "Ela-Alai" ertzaldea eta gudarien eresbatza izango dogur

LENENGO JAUNARTZA. — Egubenian egin eben euren lenengo Jaunartza emengo neska mutikotxuak.

Eguben goiz-edeŕ oŕetan geure eleiz nagosia ume gotzontxuz bete beterik ikusi gendun.

BAI, ETE? — Aurten izango ete-dogu Aste Gureneko ibildeunik? Batzuk bayez dirauskue. Beste batzuk, baŕiz, ezetz.

Nor legoke zuzen?

Geure endore jauna, beñepein, baimena eskatzen aureratu da, eta gauŕ egunian Eŕi Yaintzako agintarien erantzunari begira dago.

Guda oñetatik uŕintxu gagoz emen, zorionez, egon bere ta, geure ibildeun ospatsuak urtetia elitzateke txaŕto.

Dana dala agintarien esana egin bearko.

JOSEBA DEUNA.—Joseba Deunaren oiasko eleizkisuna beŕiko ospeaz egin zan.

Goizean amaibako jaunartzak izan zirean eta amaŕetako jaupa nagositan be lagun asko izan zan, eta egun oŕetan oi-dan lez, gizonezko asko bere bai.

Txonizlari bikaña eta baŕu baŕutikoa euki gendun euki be: Endeitza'taŕ Anastasi josulagun gernikaŕa.

Euzkel-txonitz edeŕa entzun erazo euskuna! Bai, sekula bada.

Joseba Deunaren lenengo atsegin-atsekabia gaitzat aŕtuaz, ondo pozik euki genduzan, beintzat, ordu erditxu batian!

Zorionak, Anastasi Aba.

卐 卐 卐

Josulagun Aba auxe dogu, erderazko garixuma txonitzak aspaldiko egunetan zuzenduten dauskuzana bere.

Eta iluntzero, eleiza bete-beterik eukiten dau.

Iluntzetan erderaz izaten dirala diñogu sermoiok, baña goizero seiretan euzkeraz ekiten dautso. ¡Goixetiegitxu da, geuretzat, benetan!

Belu-Mendu

Españar gudako izpaŕak-eta

Eŕepublikaŕàk Navalpotro eŕia artu dabe Brihuega'tik ogei kilometrora

Villafranca aldean bost kilometro aŭreratu. - Guadalajara ingurutako aŭrerakadak.-Españaŕak paxistekin aspertuta.-Italiar eta alemaniar taldeak luŕa jota.

GUADALAJARA'KO AURERAKADAK

Madrid. — Guadalajara - inguruan, aurera ta aurera dagite Erkal-alde diarduten gudari efimeak.

Gogor eta kementsu lotu dira oraingo ontan. Atzo, eguraldia txartu egin zan eta, gudariok geldirik lotuko zitranen ustea zuten guztiak.

Baiña, eguraldia argitzen asi orduko xe, tankeak aurretik zirala, jo ta su, aureraka asi ziran erkaldaŕak. Italiaŕak beriz, egunotan kikilduta-edo, igesari eman zioten bat-batera. Egundo alakorik! Zaragoza'tik Guadalajara'rako bidetxabal nagusi eta Brihuega aureko inguruan bakaŕik erantzun zuan arerioak, motel eta nagi erantzun ere. Bitartean, Cifuentes inguruko eskubi aldean zeuden erkaldaŕak ere, aureraka asi ziran. Ildako asko izan ziran arerio artean. Aneurkin edo kilometro asko aŭreratu dituzte Erkal-alde guda-izkiliua eskuratu zuten mutil kementsuok. Aragon'etik Algora'rako bide aldean batez ere. Algora urian lotu dira erkaldaŕok. Gau guztian jardun dute aureraka. Izkilu, janari ta guda-tramankulu ugari apatu diote arerioari. Geroxeago, erkaldaŕak Navalpotro'raiño aŭreratu dirala jakin degu.

AURERAKADAN

Barbastro. — Aragon aldeko guda-oñetan erdi aldean dagon Durruti saildiak guda izpar onexek emon zituen atzo eguerdian.

Ebro guda-oñetan izkilu ta izkilazkaŕeko dunbaketa.

Perdiguera'ko guda-oñetan, arerioak egoleikuak gogortuten ekin dautsa, baña eŕizaliak suagak suaga jaurti dautsez eta ezer egin eziñik lotu beaŕa izan dabe paxistak.

Aŭreraka da kementsua egiñaz, eŕizaleak bost aneurkin edo kilometro irabazi ditue Villafranca'ko inguruan. Uri onen alboko gañak be artu ditue eta esi ta luban baŕiak bertan egiñaz, uri ori aurez aur eta agirian dauke. Aŭreraka da au arerioak uste uste barik dagozala egin dabe eŕizaleak, eta itzumustuan aldebeaŕa izan dabe.

Guda-tresnak bertan bera laga eta igesari emon eutsen, eta kalte ugari izan eben.

Gudariak kementsu eta alai diardue aŭreraka dan, oindiño be, eta gabaz emongo ditugu izpar geyago.

Carlos Marx saildiak, baŕi onetik adirazi ditu: "Alcubierre'n zunbaketa bakartia. Izpar aipatugaŕirik ezer ez".



Ez uste izan gero, onako au, aste d oneko ibildeuna danik? Ku-klux-klan'ak dozuz, aldi baten ainbat zarata atara ebenetaikuak. Atzera baŕiz asi ei-dira urteten, eta ointzu, anaŕketa bat egin dabe Atlanta (Georgia'n).

ESPAÑAŔAK, PAXISTEKIN ASPERTUTA

Valencia. — Paxistaŕen artian, egunean baño egunean artegatasun, kezka eta urduritasun geyago dago. Izpar ori, ondo dakiengandik jaso dogu.

Agindaŕien kontra altzauteko azpijoko diarduela askok, be, ba diñoe. Atzefitaŕez luŕalde geyenak bete dituela-ta, eŕia asaŕe bai-dabil.

Iskanbilla sortu nairik alegin aundiak egiten ditue, eta Franco ilteko asmoetan diarduela. Agiri edo manifiesto bat zabalduteko gertauta euken; agiri ofetan, España'ko militaŕak eŕia engañau, atzipetu egin dabela diñoe, España'ren azkatasuna atzefitaŕei saldu dautsela-ta.

MUETA GUSTIETAKO KRISTALAK

GORBEA Y C.ª

41'gn. Alameda de San Mamés txaidian

11447 Urutizkiña

NAVALPOTRO EŔIZALEAK ARTU

Madrid. — Eŕizale gudasaiak Navalpotro'n sartu dirala egiztauten dabe goizeko azkenengo izpaŕak.

Navalpotro eŕitxo ori, Siguenza'ko epaikaritza baŕutian dago, Algora aurkaldian, eta Brihuega'tik ogei aneurkin ipar-be aldean.

Agindariak ez dabe agiri zlufik oindiño emon.

ITALIAŔ ETA ALEMANIAŔ TALDEAK LUŔ-JOTA

Andujar. — Atzo-goizean, italiaŕ eta alemaniaŕ paxistar-taldeak Pozoblanco -ingurutik erasotzea naj izan zuten. Eta, erasoari, ekin ere, ekin zioten. Eraiñegun ain tunda zolia emandako erkaldaŕak, gogor eta kemenez utzi zioten arerioari, tanke ta dinamitadunak aurretik ziralarik. Zauritu ta ildakoak eŕuz izan zituzten italiaŕ eta alemaniaŕok. Gudariak ausardiz, kemenez eta buruz jokatu zuten.

Paxistaŕok ez zuten uste eŕkaldaŕak oŕela erantzungo zietenik eta, oraln, aurera egiteko gogoa luŕ-jota dute.



Kokotxak xaltxan

Polita benetan atzoko "El Liberal"-ek, "Frente a la Catedral" izendatuaz argitaldutako idaziria.

Asturias'ko gure gudarien jaungoikotasun sendoa, ¡bai ederki erakusten duela! Bai "Liberal"!, bai orlakoxiak gera gu.

¡Bazan garaia, orlako zerbait, izparingi ortan idazteko!

Etzuen noski "Cruz Salido„'k idatziko, ¡aŕek jaŕikodu arpegia, irakurtzen duanian!

卐 卐 卐

Italiaŕak koŕika apostua egiñaz dabiltza Guadalajara aldean.

Urengo "Olimpiada„'k diranian, lenengo saria ¿italiaŕak irabazi baietz?

Sari au irixteko, naikoa dute, bere aitzean erkal edo euzko-gudari batuz jaŕi oik ikusita, italiaŕak ez dira geldituko, ez da tronpeta otsez gelditzeko esan da ere.

Italiaŕ gudarjak ez dira ez "eŕeuma" jotako jendea, ¡laixterke atzera egiteko batez ere!

卐 卐 卐

Madrilen okeŕka. Asturias'en atzeraka, faxixtak oraingoan tximiniak garbitzera balijuazteke, guda utzita.

Abek aŕtzen duten kazkaŕekuak sendatzeko! arnika ¿non arkitu?

Beti "arriba España" ta ainbeste goratu dute, nun goiko apaletik erortzen dan leyaŕezko ontzitxoaren antzera, kertenik ere geratuko ez da.

¡Abek egindute ba "arriba España" esan, ta "Afika Españari"-ekin!

卐 卐 卐

Alikante'ko S. R. I.'koak Euzkadi'ko azkatasuna aitatuaz, Euzko-Jaurlaritza agurtu du. Edeŕki, oso edeŕki, izandedila nai duana, gure azkatasuna aitortzen duenari, eskeŕak eman beaŕ.

Bañan ¿ez dediia orain bakaŕik izan e?

Guda ontan garaile intentzen geranian, ta guk guria eskatu edo jasotzera gertatzen geranian, bialj ordun ere oŕlako agurak.

Ez ordun, gu ere españaŕak geraja ta, txatxukeri oikin etoŕi, ziuf asaŕetuko gera ta.

Ordun, ordun, lagunak noŕ diran azaldu beaŕ dira.

卐 卐 卐

"Compañia Aflaga" oŕekin ¿zer gertatzen da?

Jai guzitan antzokiak bete bete egin, gelenetan txaŕtelak amajtu ta, ¿zenbat gelditzen da "Asistencia Social"-entzat?

Guk entzun degun ez, gutxi, oso gutxi, "Mixeri" bat.

"Asistencia Social" ortako dala-ta edozein kale ertzian, bi ajtona zaŕ berdin da itxuak edo eŕenak izan-kitaŕa ordutako bat jotzen jaŕiko ba'lira, oik Afiaga antzokian bilduduten baño, askoz geiago ¿bildu bajetz?

Garbi esateko, bildu egin da, eŕuz gañera dirua bildu, bañan ikusten den ez, antzeslari ta abeslariak, ondo ordaindu beaŕ, ta gero diruak ajtu.

"Asistencia Social„'entzat irabaziak zirala esan bearian, beste zerbaitentzako zala esatia obe izango zan.

Ala antzokira juandan jendeak, etzuben oraingo "petardorik" emango.

卐 卐 卐

"Eguna"ren 17818 URUTIZKIÑA

"Amaya" gañean degu, oraintxe pil pil irakiten apaŕa daŕiola dago.

Ez beste antzerkiak bezela afotz usaia, euzko-luŕin jatoŕa, baztar guzietara zabalduaz baño.

"Amaya" ikusteko egaŕi bizia, euzko-egaŕi ase eziña sortu da.

Egaŕi ori aseko da ba! "Amaya" zoragaŕia baida!

Euzko-eresi erti lana, ludi guzian zear eraku'si leike na, beste edozein lateŕiko eres lanaki ¡kaxo motel! esan leiken alakoa.

Olk dira gauŕ eta beti, Euzkadi'n goratu, eta lagundu beaŕ dan lana.

Ta aja izanik, bertako abeslari ta bertan jantzen diran guziak, orlako lan zaila, ikasi ta ikasi, egun bat eta bestean, zintzo jaraiturik, bertako langileak, ez dute bere sakeletarako, txibotik ere jasotzen.

Ori dek naiz ta askok "Primua" egitea dala esan, aberi maitasuna azaldu, eta abertzaletasuna egitea.

¡Ez dute abek ontan beste batzuen antzik!

Abek erdelkeriak abestu eta antzenten naiko diru sakelera, ta besteak erain ta erain lanean madarjkatzen txibotik jasogabe, ta jasotzeko asmorik ta nairik gabe.

¡Batetik bestea, aldia ziok aranoak ez badu!

ATAŔENE.

ZER-ESANAK

ARPIDE BAŔIJAK

EGUNA egunoroko euzke'-izpaŕingijarentzat arpide baŕijak egiteñ asi dira. Eta txalogaŕija be txalogaŕija dan lan ederi aurera eruateko ardurea aŕtu ixan daben batzordia, dagijen lanaren ekaŕkiñak onak baxen ugarijak dirala-ta, poza zinistu eziñik aurkitzen da.

卐 卐 卐

EGUNA egunoroko euzkel-izpaŕingira arpidetu ixan diranak asko be asko ei-dira. Eta ondiño egin barik dagozanak be, lasteŕ arpidetuko dabezelakua agertuten dabe.

Ikusten danentz, ba, euzkera maŕetasunak igiiuta EGUNA-aldez urten ziranen gurendea, eurak uste ixan eben baño be aundijagua ixango da.

卐 卐 卐

Alortea batu gura dauanak, lenengo azija erein biaŕ ixaten dau. Azija ereten da benak, ezer aŕtu ez eze, aŕtzeko itxaropenik be ezin ixan leikelako.

Ereten dabenak, bai; azija ereten dabenak, ereintzeari yaokan ondorena beŕa dau: besterik ezian, itxaropena.

卐 卐 卐

EGUNA-aldezko azija euzko-luŕak-ziaŕ ereten diñarduban batzordiak, baña, ereintza oŕen ekaŕkin itxaropena baño geitxubago daukala esango geuke. Ereintza oŕen ondorena dan alortea aŕtzen be asiŕa dago, ba.

卐 卐 卐

Eta ereintza oŕen alortea da atzo goxian urutizkiñez agertu yakun arpide baŕija be. Urutizkiñetik detu euskun, ba, ta EGUNA'ra arpidetu dagigula, esan. Eta arpide-sarijaz ganera, 50 laurleko emongo dau zala esan dausku, ta beŕogetamaŕekuori urteroko emokuntzat EGUNA'ren aldez ixenpetzeko.

"EGUNA'ren arpide baŕi au, esku zabal agertu yaku. Esku-zabal eta euzkeldun be bai, arpidetza eskakixuna, ta ganerantzekua be, euzkera garbi ta edeŕian egin euskun-eta.

卐 卐 卐

EGUNA'ra arpidetuko diranak, ¿asko ixango ete dira?... ¿Amasei milaŕ... ¿Geyago?... Euzkeltzale agertuten garan gustijok arpidetuten ba gara, arpidetu, ogei aneiko zenbakija txiki geratuko da. Eta abeŕtzale zintzo antzo agertuten garan gustijok arpidetuten ba-gara, baŕiz, txiki be txiki.

Txiki geratuta be, baña, ogei milako arpide-zenbakija, maŕagaŕija ixango litzake. Eta ogei mila oŕeik egunoro EGUNA irakuŕi ta irakuŕten dabena goznartuten eta gonduten ikusiko ba'lira, baŕiz, gurendaŕik-gurendiena.

卐 卐 卐

¡Ogei anei arpide! ¡Ogei anei euzkel-irakuŕle! Euzkerearen gurendaŕik-gurendiena ixango litzake ori.

Ogei mila arpidedunetatik, baña, EGUNA egunoro irakuŕi, ta irakuŕiŕakua uleŕtuten dabenak bost mila edo gitxijago ixatia jazoko ba'litz ostera, euzkerearen gurendea lausotuta agertuko litzake.

Euzkadi azkatuko bada azkatu, ta azkatutako Euzkadi bere gogua dan izkuntzea ta enparauko eskubide gustijen jabe dala gaztelaŕ usain baŕik bixiko ba-la, bixi, euzkerearen gurendea biaŕekua da, euzkera bako Euzkadi ta gogo bako soña, baŕdiñak diralako: ilotzak.

卐 卐 卐

Euzkadi'ren azkatasunari begira garala oldoztuten asten garanian, beste egin biaŕ batek zirikatuten gauz; abeŕtzale gustijok joranez eskatzen dogun Euzkadi'ren azkatasuna iñungo atzefitaŕak zirkiñik eragingo ez dautsan eran sendotuta jaŕiko daben osakayaren bila urtetiak.

卐 卐 卐

Euzkadi'ren azkatasuna sendotuko daben osakaya, bere elia, Euzkadi euzkotaŕen abeŕijaren elia da: euzkerea.

Eta euzkeraz dakijanaren egin biaŕa, ez dakijanari irakasten alegindutia da. EGUNA'ra arpidetuten diranai, euzkeraz irakuŕten eta irakuŕten dabena uleŕtuazoten irakastia.

卐 卐 卐

Euzkeraz irakuŕten eta irakuŕten dabena uleŕtuazoten irakastia lan aztuna da. Aztuna ta nekeza be bai, arpide baŕijak lortutia baño be gatxagua.

Gatxena ta nekozuena dala be, baña, Euzkadi azkatu ta Euzkadi azkatubaren bixitze sendotu ta joriŕutia gura ba dogu. Euzkadi euzkeltzaletu ta euzkeldundutia be, biaŕekua da.

Euzkera osakaya, osakai aŕtu gatxa ixango da askorentzat. Gaztelaŕ-gexo ziŕal eta erailtzaletik osatu gura dauanak, beña, aŕtu-egin biaŕko dau. Osakai ori aŕtzen ez dabena ez da osatuko, ba... Erdeldun bixi, ta erdeldun ilgo da. ¡Ori bai tamala Euzkadi Ama'rentzat!

¿Zu beti alper?

¿Ondiño, be, erderazko izpaŕingia baka-ŕik aŕtzen dozu? ¿EGUNA'ri begiratu bez, ikuturik bez? ¿Zelako euzkelduna zara?... ¿Eta euzkerea maite dozula diñozu? ¿EGUNA'ri laguntzen ezpadautzazu zelan biziko da?... Arpidetu zaite. EUZKELDUN IRAKURLE BATZA'n bazkidetu zaite ta beŕe bitartez lagundu egiozu EGUNA'ri, Gran Vía, 41'gko. 2'gn. bizitzan (17.925, 17.926 ta 17.927'gn. urutizkiñak) daukozuz bazkidetzeko ta arpidetzeko txartelak. Bertara yo.



Euzko gudariak "Euzkeldun Irakurle Batza" aldez

EUZKELDUN IRAKURLE BATZA "EGUNA" izpaŕingiari eusteko sortu degun bazkuna, baikoŕ ta pozez arkitzen dala aitortu bear degu. Euzkeldun eta erdeldun abertzaleen laguntza ba'datorkigu egunoro eta EGUNA euzkel-egunkari abertzalea bere aŕpidedun ta laguntzalearekin bizitzera aldi gutxiren buruan jaŕiko degun itxaropen osoa daukagu.

Guzien laguntzak pozten ba'gaitu, guda oñetan abeŕi azkatasun aldez eŕjotzarekin bofokan egunoro da'biltzan gudari kementsuen laguntzak, pozten gaitu, baikortzen gaitu eta itxaropen bizia daukagu aldi gutxiren buruan EGUNA egunkari bikaña, aŕpidedun eta laguntzale bidez biziko dala.

Poz pozik argitaltzen ditugu bi gudari zintzoek z u z e n d u dizkiguten idazkiak.

Eskeŕak gudari maiteak, zuek eman dezuten ikasbidea zabaldu bedi, EGUNA, oraindik geigo bizitu, edertu eta euzkera Euzkadi'ko txoko guztietan zabaldu dezagun.

EUZKELDUN IRAKURLE BATZA.
"EGUNA izpaŕingiari eusteko".

"Legutiano'ko guda-oñetan 1937 epaiak 16.

Euzkeldun Irakurle Batza,

Bilbao.

Aberkideak, agur: Euzkeldun egunkariaren jabe Euzko-Alderdia izatea, nere ames bakaŕa izan da aspaldiko urtetan, eta orain EGUNA ain egoki, apain eta edeña ateratzen dezuten garai onetan, ezin badą berari eusteko eskatzen dezuten laguntasuna eskeñi gabe egon euzkeltzale betikoa izan danaren biotza; oŕegatik, tori txiron bada ere, gogoz eskeintzen dizuten laguntza au.

ARPIDEA:

Arpidedun naiz EGUNA'n, bidalduaz egunero zuzenbide onetara:
Viuda de Zulueta
Calle San Juan, Comercio.

LAGUNTZA:

Arpidea gañera, orain bezin egoki eta apain ateratzeko laguntasunan beaŕean arkitu ez dedin.

OGEITABOZ laurleko, emango ditut urtero.

Euzkadi'ren etsaian gandik LEGAZPI'tik iges egin da Bizkaia'n eŕikatua naiz.

Agur eta agindu Jel ajdez.

YARTZA'TAR JON JOSEBA."

"Las Caldas (Oviedo).

EUZKELDUN IRAKURLE BATZA
Bilbao.

Jel'pian, agur: EGUNA, eguneroko euzkeldunai laguntzeko gogo aundia daukat eta oŕera juaten geranian bizi ba'naiz azalduko naiz arpidetzera, oŕela betetzearen egin dan oyu-ta euzkel egunerokoak gure artean, egunerokorik zendoena izan dein. Oso txorabiatzen gaude bizirik geratu geran euzko-gudariak ikusirik ¡zein eder ta apaña agertzen zaigun EGUNA begikoa!

Emengoen artean zabaltzen ditugu, dakigulako on aundia egiten duala.

Besterik gabe ikusi arte Jel'pean.

EGUZKI."

¿BETI LO?

Zuk euzkeldun oŕek, ¿ez al daki zu EGUNA agertu danik? Ba EGUNA dozu euzkeraszko izpaŕingi edeŕ bat, baŕi gustiak argi ta garbi ipintzen dauzana ta ganera irakuŕgai edeŕak argitaltzen dauna. ¿Euzkeraz irakuŕteko zure nagitasun ori noiz kenduko?

Arpidetu zaite. EUZKELDUN IRAKURLE BATZA'n bazkidetu zaite ta beŕe bitartez lagundu egiozu EGUNA'ri, Gran Vía, 41'gko. 2'gn. bizitzan (17.925, 17.926 ta 17.927 urutizkiñak) daukozuz bazkidetzeko ta arpidetzeko txartelak. Bertara yo.

OSTIKOKETA

Gaur, San Mames'en.-"Euzkadi" egazkin -alde.-Aratsaldeko laurak laurden gutxiagotan.-Euzko-Gudaroste ta Euzko-Ekintzakoak.

GOROSTIZA

GAUR SAN MAMES'EN LAURAK LAUREN GITXIAGOTAN.

Gaur bertan degu! Ora asko ta askoren ametsa betetzeko eguna. Euzko -Gudaroste ta Euzko-Ekintza'ko moroskoak alkaren aurez - aurre beriro ikustea ez zenduten ba amets?

Otsailako zaspigareneko aratsaldea degu danok gogoan. "San Mames,'en lotu giñan eta egundoko ostiko-jokaldia ikusi. Zelai-ertzak ikuslez beterik..

AEDO

Eta, zelaia? Langara, Iraragori, Unamuno, Gorostitza, Zilauren, Mugertza, antxe ziran euzko-lurak ikusi dituan ostikokalari bikainenak. Euren jokerak kilima egin zion gure zalatasunari ta berorik beroen txalotu genitun eta atsegiñez gain agurtu. Geroago... barruan oraindik ere kilima ori. Beriro milixkatu nai alakoxe aratsaldea, beriro nabaitu nai arako ikuskizunaren eder eta atsegina.

Ez? Bai? Jokatuko ote ba?

Euzko-Gudaroste ospetsuak eskutitz bat gaur, bi, iru, bat, sei eskutitz biar, zaspi, amar, amabost, etengabean urrengoan. Beriro jokatu bear lutekela arako otsailako zaspigareneko ostiko -jokaldi ikusgaria, jokatu ta jokatu egin bear dutela.

Atsegiñez erantzun du Euzko-Gudarosteak. Laister biribildu digu beriro ere egitaraua, aberatz askoa gaiñera. Euzko-Gudaroste ta Euzko-Ekintza'ko moroskoak ere "portatu" dira. Bajondaizutela guztiol!!

Jai-aldi degu gaur kiroltzaleok, ostiko-jokaldi-egun.

Egingo ote ditu gaur Langara'k, arako azkenengoz egin zituanak? Sartuko ote du arako azkenengoz sartu zuan golaren antzekorik? Nai genduke alakoxerik ikusi!

Eta, Gorostitza'k? Lengoan beste korika egiten badu, ez gera asaratuko. Urteen artun aundirik ez zigun agertu gure mutilak. Azkenengoz egin zendun alako "tanto" bat. Gorostitza, eta txaloak-txalo entzungo dituzu.

Eta beste guztiak? Lenagokoa egiten ba'dute, bejondaiela.

Eta lengunekoan beste ikusle batzen ba'gera? Leku-arapatzen lanik izango degula.

Aratsaldeko laurak laurden gutxiagotan. "San Mames" zelaian aruntz eta onuntz "biribila". Aren atzetik, korika "eraldoi" batzuk. Zelai-ertzetan, o -zabal batzuk, txaloka bestetzuk, begi uts eta atsegiñez gain danak.

Guzti orixe ikusiko degu gaur aratsaldez "San Mames,'en.

¡Gora Euzko-Gudaroste ospetsua!

AMAIKAKOTEAK

Euzko-Gudarostea'koak:

Blasko
Pablito, Areso,
Zilauren, Soladrero, Zubieta,
S. Arana, Larinaga, Unamuno, Mandaluniz, Gorostitza.

Euzko-Ekintza'koa:

Egia
Euzkalduna, Ahedo
Kuki Bienzobas, Mugertza, Markuleta
Rejon, Iraragori, Langara, Bata, Oyaneder.

KESKA TA URDURITASUNA GAUR SAN MAMES'EN.

EUZKO EKINTZA EUZKO GUDAROZTIA'REN AURKA.

ALA TA BE EZIN!

Paxistak dituen erbestetarak

Paxistarak eurei laguntzen daukezan erbestetarak gitxi gorabera oneitxek dira:

Apirkaretan 78.000 gizon; alemandaretan 39.000; italiaretan 82.000; irlandar, poloniar eta abar, beste 12.000.

Guztira 211.000 erbestetar gudari dabez España gaizkatu edo salbau nai dabenok.

Edu ori erbeste txakurak oingoan España'ri azkenengo azurak be jango dautsez.

Euzkera maite dezagun

Idazkortza arturik, ekin diot gure euzkera-izparingi jator EGUNA'rentzat idazten.

Egun onean argitaldu zaigu eguneroko onuragaritsu au. Bai zegon bai euzko-artean orelako euzkeldun izparingi baten beara: jarai bezaio gure aberi aldeko, lan onuratsu oreri, gure euzkera maiteak bazenkan orelako ituri jator baten biara-ta.

Guda madarikatu au sortu zalata, berearen ondorenagatik, gipuzkoar milaka asko aurkitzen gera Bizkaia alde onetan. Beragatik gure atseden aldietan maiz xamar egon oi gera Gernika'ko eri politean. Gure Areitzaren azpian bizi diraden biztanleak —geienak beintzat— notin jatorak diradela ikusi degu emen aurkitzen geran ilabete oetan. Baña tamalez, nere barena asko ituntzen daben gauza txar bat ikusten det eri oretan. Ainbeste aberlzale, ainbeste euzkeldun jator aurkitzen diran erian, "erdera dala nagusi". Bertako gazteen artean gure izkuntz zoragaria baztertuaz dijoala. Gernikaren artean erdera besterik ezdala entzuten. Beraz, gertakizun au tamalgaria da, oretako eri batean euzkera jakin aren erdera bertan nagusi izatea.

Gernikar guraso ori: euzkera dakizunez, eta zure izkuntz bakara euzkera bait da, erakutsi zure seme alabai euzkera maitatzen. Eta zuk, gaztea, zure españetan euzkera bakara dalarik, azaldu egiozu Gernika'n aurkitzen diran beste eritakoeri, gernikarak euzkera badakitela, gernikarak beren izkuntza maite dabela, Gernika'n ere, beste elietan lez, abertzale jator asko ba -dirala.

Gure kuartela Bermeo'n dago-ta, gure atseden egun geienak bertan igaro bearean izaten gera.

Ainbeste negar izandu duten arantzale eri onetan, ikusi dogu makinatxobat abertzale sendi jator ba-dirala.

Eri onetan ikusten dogu euzkera dala nagusi—naiz da mordol xamara izan—eta gauz orek asko posten gaitu.

Gure izkuntza ain zoragaria izanik, eta guk, geure geurea bera izanik ¿ez al gara euzkeraz mintzatuko? Bai, abertzalea; ikasi dezagun gure ele maite au biotzez maitatzen, euzkeraz bakarik mintzatzen, gero Euzkadi azkatzean, gure izkuntza, euzkera maitea izandu daian.

Itxasmendi'tar Iñaki

MUGERZA

Pelota EUSKALDUNA'N

ARIEN TXIKI

Gernikar morosko onek, Aboitiz lagun daula, Zabaleta ta Etxaniz I'ren. aurka jokatuko dau gaur aratsaldian Mungia'ko pelota-tokian.

EUZKO EKINTZA ETA JEL ALDERDIKOAK BIGAREN JOALDIAN.

PALA ETA EREMONTEZ

Gaur, igandeari berea emateko, palaz eta eremontez jokaldi ikusgarriak jokatuko dituzte "Euzkalduna" pelota -tokian. Eta, igandeari berea emateko, eragozpenik izaten ez ba'degu beintzat, ikustekotan gera. Atsegin ere atsegin degu eremonteko "ziztaratxoa". Pasai gastearen "takadatxoari ere badakiogu eder irizten. Goraberak arakoxe utzi ta eman dezadan egitarauaren beri.

Palaz:

Orantia ta Pasai, Pruden, Somorrostro ta Fuentes'en aurka.

Eremontez:

Rodriguez eta III'gn. Abrego, Larañaga, Gurutzeaga ta Amenabarr'en aurka.

Atzelari jokatuko du gaur Abrego'k, sakea, baiña, bere gain izango da.

Gaur, goizeko amaiketan, "Euzkalduna,'n.

LORETXO
ELEBERRI - EDESTIA

Zarauztar gudari kementsuari, gelgari ta maitasunez.

XI

rontxu:

Zurea nai baño nekezago artu det eta osasunez zerala jakitearekin beñere baño poz aundiagoa artu det. Beri samin bat eman bear dizut. Nere gurasoak eguari egunez il ziran (G. B.). Aita-ama'k egun batean, Aita goizeko zortziretan eta Ama aratsaldeko bostetan. Azkenengo idazkian esaten nizun gaxorik zaudela eta luzaro egon ondoren il dira.

Gizagaxoak, uste zuten, noski, paxistak uriratzean gentza eta zoriona zakartela eta ikusirik urian egin dituzten ankerkeriak, ezin bizi ziran guraso gaxoak. Paxistak agintzen dauden aldian atsekabe asko eraman zuten; ba-da ¿nola ontzat artu kistar zintzoak, paxistak egin dituzten erailketa eta beste ainbat lotsagarikeriak? Konturatu ziran oker zeudela eta naigabe oiek etzuten gutxina lagundu guraso maitien eriotzera.

Jakingetasunez, naski, baña, ba-dakizu nere gurasoak zuten gorotoa abertzaletasunari eta gaxotu ziranean aita-ama'k, beren biotzak lasaitzeko asko eta askotan esan ziraten barkatzeko. Nabaritu zirala abertzaleak zirala egi aldezleak. Il ziran aureko egunean azkenengo aitormena egin ziraten, esanaz.

Aita'k: Loretxo. Eriotza nabaitzen det, baña, pozez nago iltzeko.. Zu, bakarik ustea beste naigaberik ez daukat... Nabaritu naiz oker nengola eta esan diozu, Yon'i, nik opa dizuten bezela alkar ikusten ba'zerate. EGIA NABARITUTA IL NAIZELA.

Ama'k: Loretxo. Jaio geran guziok il bear degu, beaz, eriotzak ez nau bildurtzen... Poz aundi bat daukat eriotzarekin borokan nabilen une onetan. Yon, kistar zintzoa da eta zu zoriontsu izango zera berakin. Maite egizu orain urte bezela, maitasun garbiarekin. Nere azken itzak berari esan.

Pozik nago nere gurasoen azken aitormenarekin, atsekabeak arintzeko bearean nago. Zu ere pozik egongo zera gurasoen azken aitormenarekin?

卐 卐 卐

Emen gertatzen ari diranak izugariak dira. Asezkorak dira paxista ankerak. Espetxean zauden emakumeak atera dituzte orain dala egun gutxi. Euzkadi'ko Jaurlaritzak, espetxetik emakume paxistak atera zitula zenbat aste igaro dira?

Emen espetxetik ateratzeko dirua kendu diote, alduen geina bakoitzari. Oleetan lanik ez da egiten, zoritxara besterik ez dago...

Irusta basetxean izan nintzan. Lenbizi etzuten sinisten, beñez ... nik, baña, zure idazkia erakutsi ondoren egia zala konturatu ziran eta poz pozik geratu ere.

Aspaldian, zoritxar jabe da sendi auxen. Alaba nagusia il zaiote eta aita zara, basetxe nagusia, adimena naastuta dabil. Abertzaleak komunistakin bat eginda kistar sinismen aurka goazela burua berotu dioz karlatar batek eta ainbeste naigabe ezin eramanaz burutik naastua dabil gizaraxoa.

卐 卐 卐

Iñauteri jaietan oitura bezela iru egunetan elizkizunak egin dituzte praileetako elizan. Lenbiziko egunean Miren Sorkunde egunean itzegin zuen praile gazteak. Oso ondo itzegin ere. Bigarenean, au zauden uriko abizendun praileak. Onek ere bai. Salatu dituztela marmara dabil uri guzian. Irugarengo egunean izugariako ur parazta bota zigun txonislariak. Etzuen bi aurekoen antzik eta kistar sinismen irakasle batentzat etzan itzaldi egokia.

卐 卐 卐

Orain arteko erailketa eta ankerkeriak naiko ez ba'lirake bezela, orain uritik aldeginda, Euzkadi'ren Jaurlaritza menpean dauden gizonen, emazte eta aortxoak bialtzea dijoaz guda oñak igaroaz eriotz arizkoan... Oien artean, Irusta basetxeko, kalea ezkonduta dagon alaba, bere senara Bilbao'n dauka ta. Berakin bialtzen dizut idazkia.

Gertakisun auek abertzaletasuna bizitzea besterik ez du iritzi; ba-da, ikusia dago emen agintzen duenak euzko-abenda gorotua daukatela eta asko eta asko konturatu dira, zorionez.

Naparoa ere bialdu dituzte sendi batzuek. Oien artean orain arteko eroakuntzak naikoa ez dirala, kaskamotz jari zuten neskatilaren sendia. Gudaketa onetatik bizirik ateratzen ba-da, neskatilan ama gaxoa, zer edestua izango duela uste det.

卐 卐 卐

Oraintxe bai esan nezakela ludi onetan bakarik geratu naizela... Poz bakara daukat... eta zu neregandik urruti. Bai, Yon. Oraintxe beñere ba-da ta euzko-gudaroztearen garaitza ikusi nai nuke.

Lenbait'len erantzun dirazu, zure idazki zai, egunak aste eta asteak ilabeteak egiten adizkit. Noiz ekingo diozute Gipuzkoa'ko lurraldean euzko gudarozteak gudaurka? Gipuzkoa guzia besoak zabalik zuen zai dago. ¡Besoak eta Biotza! Mota eta euzkotar endekatuak izan ezik.

Ni, zure kemen euslea ba'naiz zu nere itxaropen bakara zerala jakin ezazu. Noiz arte maitetxo? Loretxo.

MENDI LAUTA.

Donosti Buru Batzara

"Kizkitza,'ren (G. B.) idaz-lanak argitaratzeko, Donosti - Buru - Batzar, asmoa beterik, zabaldu ta dagon arpidearen jaraipena.

Oraindañokoa, laurleko ...	3.299,50
M. P.	5
F. J. L.	5
Loyola'ko bat	5
S. E. A.	2,50
Donostia'ko poxpolin bat ...	1
Umetxo bat	1
Arantzale zar bat	2,50
Ugarte'tar X.	5
M E	5
Guztira	3.331,50

Arpidea: Gran Via, 15, 1.°, aratsaldietan [illegible]

IZTEGI TXIKIA

Azalpenak eta erantzunak

Txarteltxo mordo bat jaso dogu "Iztegi txikia" gure saleko txalteltxoak, itaunez beterik. Galdera batzuei erantzungo dautsegu gaur. Markiña eta Xemein aldean dagozan gudariak bialduak eurok.

"Ikuratza": sello.
"Trebetasuna buruz": en lo que concierne a la pericia.
"Poto egin", "porot egin": fracasar.
"Burun burun": ruido del aleteo de la abeja, motor de avión.
"Gaulena": el anochecer.
"Jaurkera": régimen, sistema de gobierno.
"Lanperatua": agobiado de trabajo.
"Pentzu": confianza.
"Ateunetan": en los "bous".
"Zurubi": escalera.
"Txalro": bonito, elegante.
"Zizak": impuesto; setas.
"Papaua": duende, espantapájaros.
"Edu": manera; tanto, como.
"Berunbil": bala.
"Suagatu": cañonear, bombardear.
"Adu", "zori": suerte, fortuna.
"Zarpail": andrajos.
"Kutsu": contagio, dejo, remilgo.
"Kusu": ikusi "papaua".
"Erija ondo erabili": gobernar, administrar bien.
"Zaingo": Departamento del Gobierno vasco.
"Asaldariak": insurgentes.
"Polorik": pororik itza da, oker idatzia.
"Edatu": ampliar, difundir.
"Galendu": multar.
"Atxilotu": preso artu.
"Txiristada": resbalón.
"Langatu": poner vallas.
"Alera": epiteto despreciativo.
"Ankar": cruel.

GUDEA

Gudea ankera be ankera da; dan ankerez, txerenak be ankeragorik asmauko ez leuken lakua.

Gudea asmau ebanak eta gudea egiteko zijo barik gixarteratuten dabenak, berein zoritxar - bide gixarteratuten dauz; berein erailketa, berein lapureta, berein ondabide sortu.

Erailketa, lapureta, lixunbide ta gaiztakeri gustijen iturbegija da gudea.

卐 卐 卐

Zoritxar eta obenbide gustijak aldian dabezala jayotako guda ezeskari auxe da, bariz, paxiotarak ekari euskuben gudea.

Eurak, baña, egijari iri geyago egitiaren-edo, uskurtzea aldeztuteko ekari ixan dabela diñue.

Zoritxar gustijak, erailketa ta lapureta-era gustijak aldian daukazan gaiztokitaren gudea ekari ixan dauskubenak esateko guzur txikija da ori: zoritxarik-zoritxarenak gixarteratuten dabezan gudea "erlejiño"-aldezkua dala esatia.

卐 卐 卐

Ogasunen ondatzia, sendijentzako negara. Elexa deunarentzat eta eleiz -gixonentzako gorotua ta beste berein obenbide ta gaiztakeri aldian dabezala gixartia-ziar zaldi-eruaren antzian jo batera ta jo bestera itsumustuban dabilan gudea ekari ixan ebenak, ondiño be, donokitik etoririko gotzona ba-litzan laguntuten dautse gudeari.

卐 卐 卐

Eta gixabatza osua deuseztuteko ekari ixan daben gudeari su geyego emoteko, gudornijak-gudorni batzen ari dira.

Gudornijak eta guda-izkilubak España'ko paxiotarai eruaten dabiltzanak, bariz, atzeritarak dira: doistarak, italiarak eta onein lagunak.

卐 卐 卐

Eta orain paxiotarai bidaltzen dautsezan guda izkilubak, "kontrol"-lagitik atazkuak dira, "kontrolari" iri-egiñaz ixil-mixilka lapureta-antzo egiten dabezan bidaltzjak.

卐 卐 卐

Aurtemin, "kontrol"-agirija ixenpetuta urengo egunian, doistaren ixontzi bi guda-izkiluz ezin geyaguan zamatuta dirala, Amberes'era eltzen ikusi dabez, eta andik España'ko paxiotarak agintzen daben izturijetaruntz egiten.

卐 卐 卐

Gudea, ¡gudea dan ankera...! Paxiotarak ekari ixan daben guda ezeskari onek, gudearen arerijorik arerijuenak be, gudara eruan dauz.

卐 卐 卐

"EUZKADI" EGAZKIN ALDE, GAUR SAN MAMES'EN.

Euzko-abertzalijak bein be ez dabe gudarik gura ixan. Eta alan be, guda -nastian nastau biara ixan dabe.

Eta guda-naste onek matazatu ixan daben arijari erpiñik idoro ezinda, Euzkadi'tik urun eruan ixan dauz euzkotarak eta eurena ez dan aberijagaño kua aldeztuten imiñi.

卐 卐 卐

Ugolde aundijetan ibai-ur indartsubak ibaya-bera oruka jasten diran aldijan, aurian artzen daben gustijaz jabetuten dira, ta urak eltzen diran tokiraño eruan.

Euzko - gudarijak be, ugolde-antzo agertu ixan dan guda onek, alantxe artu ixan dauz, eta paxiotaren gorotua eldu ixan dan tokiraño eruan: Asturias'era ta abar...

Euzko-abertzalijak, baña, uskurtzalijak be zintzuenetarikuak dira-ta, gudara be jaupari ta gusti juaten dira, baña uskurtzarik ez dabela gura esaten daben uri ta basurijetara be. Asturias era be, alantxe juan ziran: jaupari ta gusti

卐 卐 卐

Eta Asturias'en; txadonak ere ta jauparijak erail - egiten dabezala-ta abar esaten daben Asturias'en be, ludi gustijaren aurian autortuten daben uskurtzaletasunik ez eben ostendu gure euzko - gudarijak, eraspenik-eraspenenaz eta sendotasunik - sendotasunenaz Asturias gustijaren aurian adoretsu agertu baño.

Eta euzko-gudarijen benetako uskurtzaletasuna uartuki, uskurtzearen arerijotzat agertuten ebezan asturiastar setatijenak be, gelduta geratu ixan zirala diñue. Eta izpar au edatu ixan dabenak, ez gara gu, eurak, asturiastar elexa-arerijo agertuten diranak baño.

Benetan zinistu ta benetan erakusten dan uskurtzearen aurka gaiztoentzat dagozanak be, ezin jagi ixaten dira. Beraz, asturiastarak bez.

卐 卐 卐

Asturias eta Leon'go jaurlarija dan Belarmino Tomas'ek be, euzko gudari abertzalien uskurtzaletasuna, agirijan goratu dau. Eri-aldezliak Oviedo'ko Gotertxadonari oldartubaz txagora-gañokua apurtu ixan dautsela uartutian, suagalarijekanuntz zuzendubaz uar auxe egin ei-etsen:

—Jaurti biar dautsazubezan suaga -berunbilak jaurti egijezuez; baña ez gustiz deuseztu, ondiño Gotertxaun ori jaupea egiteko biar da-ta.

Oviedo'ko Gotertxadonan egiteko dan jaupea, Oviedo paxiotarakandik gustia garbituta geratuten dan egunian egiteko ei-da. Eta jaupea egingo daben jauparija, euzko-gudarozteko jaupari euzkotara ixango ei-da.

卐 卐 卐

Eskertaren izparingijak irakuri doguz. Eta izparingi oreik, Euzkadi'tik Asturias'eratuta ikusi ixan dabezan gudarozte kistarak eta uskurtzaliak ikusita, arituta geratu ixan ei dira.

Uskurtzea zer dan be ez ekijen eskertar gaxo areik, euzkotaren uskurtzea, beste gauza bat ixango zala uste ixan ei-eben: Queipo, Mola, Aranda, Franco, Hitler, Mussolini ta orein jarai dabiltzan paxiotarak erakusten daben kistartasun bako uskurtzea.

卐 卐 卐

Eta euzkotar gudarijak erakutsi ixan dautsen benetako uskurtzeaz gelduta geratu ixan diran eskertar izparingijak, Pando'ko gudatokijan jazo ixan zana edestutian diñuena, auxe da: uskurtza-aldez dabiltzala esaten daben Franco etoyaren gudarijak jaurtiteko berunbilak, Pando gudatokijan euzko-jaupari agurgari baten buruba zauritu ixan ebala, benetako uskurtza aldezlia zan jaupari agurgari bat erail ebel. Asturias'ko lurak, euzko-odolaz gorituta geratu dirala.

卐 卐 卐

TARTELAK ATHLETIC'EN ETXEAN AMARETATIK ORDU BATETARA.

Eta Franco ta aren jaraitzaliak erakusten daben "erlejiño"-erea erjketa -"erlejiñotzat" agertuteko, uskurtza -egari diran gudari zaurituei azken -orduban laguntuten ebilan-artian erijotzea idoro ixan eban Korta'tar Joseba Mirena'ren zintzotasuna ta uskurtzaletasuna, goi-gora jasota erakusten dabe. ¡Gudea dan ankera...! Goyan bego Korta jauparija.

Emakume bijoztuna

Emakume bijoztuna, nor da? Norberaren biarkunak, nai ta neketsubak izan, kemen ta adorez betetan dakijazana da emakume bijoztuna. Gixartiaren bitxi ikusgarija. Sendiaren ta gixartiaren zorijona. Idazteuna'k dagisku emakume bijoztunaren argazki zi atza, nik egin al dodan baño lirañagua, osuagua. Ona emen, irakurle:

"Bitxi guztijak baño balijo geyagokua da. Beragaz atsedentzen da senararen bijotza eta etxeko aberastasunak goruzka ikusten dauz. Bere bixiko egunetan, txara barik, ona dakartso berak. Liñuaz edo kiruaz ta artuliaz landuten dau eta bere eskubetako lan guztijak esan onak artezten dauz. Bear diran gauzen bila urunetara doyan ixontzijaren antzekua da. Gabaz jagi ta neskame bakotxari bere lana ixentabaz, artulja bananduten dautse. Solua ikusi ta erosi eban; bere eskubakaz irabazitakoakin mastija imiñi eban. Sendotasunez estutu ebazan bere mukurak ta indarez indartu bere besuak. Bere egikunak onak zirala ezagutu ta ikusi eban; gabean etxakon kurtzulurik itzuli. Bere eskubak gorua artu ta bere atzamarak bira eragin eutsan ardatzari. Neguaren bildurik ez dauko bere etxekuentzat, moroi guztijak jantzi bikotxak daukezelako. Bere eskua txiruai zabaldu ta esku biak luzatu eutsazan biartsuari. Zurpeta (tapicerías) ederak landu dauz ta kiru ta janzkoriz jazten dau bere gorputza. Uriko atadijetan jarita dagoanian dizdir dagi bere senarak. Sendotasunez ta edertasunez jantzita dago ta atsegiñez asetutakoa ixango da bere azken -eguna. Jakituriari idegi eutsan bere abua ta erukitasuna ixuri daroye bere espanak. Berjak nundik nora ebiltzan yagon eban, eta ez eban alpererijan ogirik jan. Bere semiak jagi ta "zorijonez zorijontsuba" deitu eutsen; jagi bere senara ta goralbenez ase eban... Guzurtija da liraintasuna ta uskerija edertasuna. Jauna'ren bildur dan emakumiak ixango dau aintza. Emoyozubez bere eskubetako igaliak ta bere egikunak uriko atietan goraldukø dabe."

Emakume bijoztuna... bitxi guztijak baño balijo geyagokua da. Ze egija... ¡Ezkongia ba-da, etxeko guztijen atsedena da; etxeko ta kanpokuen alaitasuna; umjen gozotasuna; gaxo ta zaren itxaropena. Ezkonduba ba-da, senararen atseden gentzatsuba, etxeko iri-bare argija, auzokuen jagole zerutara, txiroen sorosle maitatija. Ama ba-da, bere seme alaben ezti itxaropentsuba, etorkixun dizdiratsuba, atsegin maitetsuba.

Emakume bijoztuna... bitxi guztijak baño balijo andijagokua da, baña bitxijak urijak ba-dira ludijon... urijaguak dira emakume bijoztunak. Alegiñez alegindu biar gara euzkotar guztijok emakume bijoztunez EUZKADI jauregija bitxituten. Nok ezeztu oretariko bitxiz eraldutako aberi-jauregija?

MAITE.

"Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikua'rentzat" ixildu barga esan oi - eban Arana -Goiri gure irakasliak.

Esaera au abuan, goguan eta bijotzian euki biar dogu, beti ta beti.

ANDIK ETA EMENDIK

Orgaz paxisten generalak bere agintaritzea utzi ete dau?

Italiafak artu daben lepokadea.-Amerikara bidaria, egazkiñez. - Paxisten menpekoak naspilla billa. - Asturias'ko giroa. - Japondafak aufera. - Beste izpafak.

ITALIAFAK ARTU DABEN LEPOKADEA

Londres.—Guadalajara aldean itafiafai lepobetena emon dautsela-ta, izpafingiak jardun luzeak agertu ditue.

Lenengotan uste zan baño be astitaldi izugafiagoa artu ei-dabe italiafak joan dan asteko bufukaldietan. Lufalde naikoa galdu dabe, guda-tresna ugari eta iliko eta zaurituako gizonak. ainbat izan ditue

Madrid'en zaintzale diran gudasail efizalien indafa ta jokaerea ez dala edozelakoa argi dago gudaketa ofein ostean.

AMERIKARA BIDARIA, EGAZKIÑAZ

Paris. — Ego-Amerika'rako egazkin bidai edo kofeo baltzuaz Trasatlantike ontziekaz atonduta, bidari geyago ipiñiko ditue.

ORGAZ KENERALAK UTZI?

Paris.—Orgaz keneralak agindaritza-ardurea utzi egin dabela diñoe Paxistekin dago gudalburu ori, eta Marueko'etako gudasalen naguzitzakoa zan.

PAXISTEN MENPEKOAK NASPILA BILA

Londres.—Españaf paxisten mende egon dan egazkinlari bat eldu da Gibraltar'era. Azalpen ikaragafiak egin ditu.

Franco ezin dabe ikusi bere lagun militafak be, paxista afotzen esku utzi bai-dau lateriaren buru-jaubetasuna. Salamanca'n dago aleman ordezkaria ta Franco ilteko antolatua euken konplot gileak lengoan atrapau zituen.

Konplot ori susma ebenean, efuz egotzirik eun soldau inguru il zituen, eta izardun batzuk.

Eundak atxilotu ditue, baña paxisten artea asafea ta egon-eziña ugari da. Zigofez bildufpe bizi dira.

Efizalien aldera noiz iges egingo ibili da egazkinlari ori, bañan afetaz zaintzen bai-ditue, eretzirik ezin irtxi. Orain. Gibarltar'era eldutea lortu dau, eta erizaliekana jo nai dau.

Valladolid'en eta Salamanca'n, paxisten edefa iñork ez dau nai egin. eta eragozpen bila jarduten dabe efitafak. Gudalburuak, izu-legeak dirala bide, jendea ixilik lotu beaf, baña soldauak nagusien kontra alakoren baten jagitea ez litzake afigafi izango.

Paxista ofizialak be, asafe dira, guda-ekitaldi eta asmo-sortzale nagusi alemanak diralako.

Izpaf oneik Londres'ko politikoei zifara andia eragin dautse.

ASTURIAS'KO GIROA

Gijon.—Oviedo-inguruan, gure artileriak jo ta ke diardu ta arerioa estu ta lafi da guretafen kemenaz. Atzoko jarduna ere efiko seme diran gudarien aldekoa izan zan. Zauritua ta ildakoa ugari arerioak.

Etengabean diardute gudariok, tinko ta lerden beti izkilua eskuan. Naranco-aldean, atergabe daragiote guretafak ametraladorari ta ixildu gabe kañoiari.

Itxasalde gudaloroko talde edefa.

JAPON'DAFAK AUFERA

Tokio.—Mauricio de Lima irakaslea Japon'era juan dan brasildaf ingiñeru-talde burua da ta arañegun eldu zan Tokio'ra. Japon'go ola ta gintzak ikuskatzeko asmoa ei-dabe Japon'go gintzok belu asi ei-dira baiña beste tokietakuak baizen eldu ta auferatu ei-dira gauf irakasle ofek aitzen emon dabenez.

C. N. T. TA U. G. T. BAT EGINGO DUTE

Madrid.—Batzaf batzuetan diotenez, laistef U. G. T. eta C. N. T.'koak burututako agiri bat zabalduko da. Agiri ofek bi batza oiek egiten dutenen befi emango du.

Batasun ori gudatea bide dala egiña dana badirudi ere, balitzake gurenda lortu ondoren ere, batasun ofek sendo ta tinko jafaitzea.

MUNDUARI BIREA EGAZKIÑEZ

Nueva York.—Amelia Earhart egazkinlari ospetsuak egazkiñean mundvari birea egiten diñardu. Hawai ugarteetan, Honolulu'n dago une onetan; egualdi txafak jo dabe ta egin beafa izan dau.

¡Ama!

Barnan nabaj d
gogo min
Aginka biotz
lertze duin
Guraso gosez
¡Ase ezin...!

Nolaz etzi bere its gozotsaz
nire maitasunen il-gaitza?
Zeu gabe, ¡ezin! ama alaitu,
zeure duzun, nire biotza.

Oroitzak ditut biraka
Irudimenak zearka...
Maite oñazeek zirtaka.

Barnan nabaj dut
gogo min
Aginka biotz
lertze duin
Guraso gosez
¡Ase ezin...!

ANDONI.

Kalamua'tik.

GIPUZKOA fentzat jakingafi

GIPUZKOA'KO ALDUNDIA

Gipuzkoa'tik etofitakoak, gerokoan legezko agintarien menpean egon dirala beti egiztatzeko, Aldundi onek norberekiko zedula edo agiriak banatzea erabaki du.

Agiri ofen ordaiña, guztiak lortu al dezaten, al danik ariñena izango da, naste-aldi au baretzen danean Gipuzkoa'n al izango dan bestekoa.

Ofegaitik, afen, jaso dezala bakoitzak bere efiko Udalean agiri ori; norbere onerako ta gaur egunez Aldundi onek dituan ainbat bear-izan ornitzeko, egokia da izan ori, gaiñera.

Donostiafak Aldundi ontako landoletan (Astarloa, 10) jasoko dituzte oitatutako agiriak.

AROTZ BAT TXAFA DA EUZKADI'RENTZAT, BAÑA ASKOZAZ TXAFAGO DA BERA EZAGUTURIK ABERTZALIA EZTAN EUZKOTAFA.

Zindo eta gertu

URRENGO IGANDEAN, VI ABERRI-EGUNA

Gora biotzak, euzkotafak!

OROIPENAK

Ezin etsi Euzko Efi il eziñak!

Egunak joan egunak etofi, aspaldion euzko-abeftzaleok geure Abefia'ri zearo ta osoro opaldu oi dautsagun eguna ganean dogu. Udalenaren egunetan oi dogu geyenez.

Abefi Eguna! Leen miñez beteten gaituan esakun gogokoa; Euzkadi zaafaren berpizkunde zoragafia iragarten dauskun jaya.

Aurtengoan, baña, bakea ames eragiten dausku. Geure egun edef ofeitan izan daroagun gentza ta poza, bake ta alaitasuna, euzkotaf guztion alkaf batu beafa! Ezin izango dogu urte onetan abeftzale askok alkafekin ospatuteko ereti ta betarik.

Zati bi eginda geunkan Abefia, iru atal egitan dogu orain. Erdibitua genduan Euzkadi, iru aldetan banatua dogu gauf.

Ta Abefi semeak or emen sakabanatuak. Sendiak alkaftasun bage, batzuk atzefian, beste batzuk gudoñetan. Frantze'ren agindarikeripean asko, españaf paxista madarikatuen espe milaka, il dauskuezan abefkide asko, gugandik urutt.

VI'gafen Abefi Eguna! Abefi Egun odoltsua, bañan iñoiz baño ozpagafiagoa, agaitik euzkotafentzat. Azkatasuna ezpaita be rez irixten, neke ta lofez, eskeintza ta odol ixurika baizik.

Abando, Donostia, Gazteiz, Iruña, Abefi osoan, ofa bost bidar Egun aintzatsu ofek ospatu. Bizitzaren zartada baf eze, bizia enako bear gane agertu ala, asaben zanetako odola abenda zafaren kiinu bafietan dardara sotilez iñafosi oi da.

Olantxe aurten be. Mendi eta ibafetan euzko odola ugari ixuri bai da, aurtengo udabafiak alako izaera bereizia, oi ez bezelakoa, beren berengia dan Euzkadin. Arbasoen gogoa iñoiz ez añean geure soin eta miñtan dogu, eta Abefiko aizea azkatasun kutsuz bete da. Ifi utzi zoliak eta gudara-dei ziran turutotsak lufaldeotan bafena zabaldu dira, eta muño eta mendi tontofetan sutzafak gafetan agiri!

ASMOAK

Afotza datorkigu buztafi astuna ezatera. Euzko jaunak batzafa egin, eta Astobizkafeko kantuaren oyartzuna suete ta eskaratzetan entzun da.

"Arpegia gofituta darakus euzkiak", bañan gofiagotuko dira agian mendi auek. Ikufiñak zabal, euzko mutilak irmo, zafak amesez, emakume abeftzaleak adore itufi, eta asmo bat gurari zindo bat biotzetan: zapaldu afotza! Jaurti atzefitafa!...

1937'gn. urtea! Eta 1839'gna, zala eun urte laster.

1939? Buztafipetze eun urteufen ala azkatasun goiznabaf?, itaun dagigu "Gudari" idazle azkafak oraintsu eta beñola bezela.

※ ※ ※

Berpizkunde igandea! Pasko aldi! Abefi-Eguna!

Ufengo igandean dogu, abefkide laztan, geure sorteriari eskeñi oi dautsagun jayaldi. Eriotzeaz bufuka zitalean milaka urtetan diarduan Euskalefi zafa ez da, ofaitiño, oraingo gudaketa izugafi onetantxe ere ilko. Ziñopaen odolak bizitza dakaf, euzkotaf jausitakoenak abefkide bafien jagite maldur eta oparotsua.

Jel agindariak oyu egin dauskue, ta guda ots artean efiak biz-biziro jaso dau dei maitagafi ori. Euzko abeftzale guztiak ospatuko dogu, beraz. Ofa abendafen kemen lafia, itxaropen argiaren zantzu mardula etofkizun zoritsuaren iragarki nabarigafia.

ELEIZKIZUNAK

Eg'taraua ez dago oindiño biribildua. Jaikun ugari izango da, ordea, eta aste ontan egunero jardungo dogu zeaztasun eta gora erak irakufliei adirazten.

Jaupa bi, meza bi izango ditugu Bilbao'n.

Babestuak, euren efietatik alde beafez oner eldutako abefkideak Begoña'n izango dabe meza ta jaunartzea.

Paskoazko egun ofetantxe egin dagiela abefkide maite ofek nai dabe Euzko Alderdi Jeltzale'ko agindariak. Eta bakoitzaren txaltetxo ta guzti, ekanduaren arauez egin ere.

Bigafen meza, abestua izango da. Meza nagusia, alegia. Euzko Abesbatza'k eta efiak abestuko dabe.

EFI-JAI ETA KIROLAK

Euzko kirol gizonak alaitasunez beteko dauskue geure Eguna euren sayo ikusgafi eta edefen bitartez.

Laistefkariak sayo ugari egingo ditue: 100 metro, 110 ostopoz, 100'eko lau aldaketaz, 1.500 metroko sayoak.

Palankariak, janozkalari edo saltokariak, pixu-jaurtzaliak...

Aizkolari eta afijasotzaleak ere izango ditugulakoan gara. Ta txifinguts-lastefketa eratuten asiak dirana jakitun gagoz.

BETI GERTU

Jaikun guztiak burututakoan, egitarau iragarki apaña argitalduko dogu, eta bai gordegafia izango dala!

VI'gafen Abefi-Eguna ganean dogu, abefkide. Euzkotafa beti gertu eta zindo, bake aldian bezela gudakoan ere.

Gudari talde bat, ardi ta bildotsekin lagun egiñik.

ANDIK ETA EMENDIK

Alemaniar diru-etxeak ondo dabiltz.-Efusitar generalen batzafa.-Alemania, Frantze eta Inglatefa.-Frantze'ren diru bilketa.

ALEMANIA, FRANCE TA INGLATEFA

Berlin.—Frantzetafak eta aleman batzordeak ekonomi arloak aztertuten jardun dabe. Diñoener, Alemania'k eta Inglatefa'k itxasket-arazuetan izketaldiak asiko ditue lastef, itunbenen bat egiteko asmoz.

EFUSITAF GUDALBURUEN BATZAFA

Berlin.—"Angriff" egunkariak, Mosku'n gudalburuen batzafak eta jardunak izan dituela, diño.

Borochiloff mariskala maipuruko zala. 2.000 ofiziale baño geyago batzaftu ei ziran.

DANTZIG'EN POLAKAFEN ESKU BIDEAK

Varsovia.—Polonia ta Dantzig'eko agindariak artuemonak egingo ditue uri azke onetan polonitafen eskubideak zein diran erabagiteko.

FRANCE'REN DIRU BILKETA

Paris.—Frantze'ren aldezketa eralgipenetarako diru biltzeak ondoren bikaña izan dau. Etengabe ari da efia egokiro erantzuten. Lenengo ateraldi bietan 8.000 miloe ziran beafeko, eta 500 miloe franko geyago batu izan dira.

ALEMANIAF DIRUETXEAK ONDO DABILTZ

Dresde.—Dresdnef Bank diruetxearen batzaf nagusia egin dabe, eta euneko lau "dividendo" dalako banaketa egiteko erabagi dabe. 144.598.600 marko domua, 21 garazkidun edo azionistak zaindu eroiezan.

Joan dan urtean Banku ofek irabazi onak izan dituala ezaldu eben.

INGELES ONTZI BATERI ERASO PAXISTAK

Londres.—Valencia'ko Gobernuarentzat kontrabandoa eroiala-ta, "Gringwear" ingeles ontzia geldi azi eben españaf gudontzi paxistak, eta Gibraltar'en utsitu eragin.

Ontzi ori, gariz beteta joian, eta kapitanak bere asafea agertu dau bidebagokeri orixe dala ta.

JAPONDAFAK, RUSIA'RI ZIRIKA

Mosku.—Efusitaf gudariak eta manchuriafak naspila ta bufukaldia izan ditue bafiren bafi. Tunshinag aldean gertatu da matasa ori.

Mandchuritaf soldauak Efusi'ren lufaldetan bafuna ibili nai eben.

Efusitaf lau soldau ilak izan dira.

GUDA-ZAINGOA

Guda-Osasungo'ko Agintaritza Nagusia

Eritegietako beaf-izanak ornitzeko Agintaritza ontan jaso ditugun emakuntzak:

Bayon eftilari jaunak, 172,75 lko.; Zofnotza'ko Eritegiko Osalari-taldeak, 105; Gintza Igituetako euritako oletakoak, 144; Irakasle-Batzak, egun batekoa, 1.000; Campsa'ko langileak (Santurtze), 148; Bayon eftilari jaunak, 351; 3'gn. Artileria Astuneko Taldeak, 100; A. C., 25; E. F., 25; Sendi abeftzale batek, 45; Santurtze'ko Maiztef-batzak, 50; Gogo-lantze-batzak eratutako antzezkizun batekoa, 400; Campsa'ko langileak (Santurtze), 122; Bayon eftilari jaunak, 202,10; X. X.'k, 50; Landalutze'taf Luka'k, 200; Blanco'taf Albontsa'k, 25; Areatza'ko Eritegikoak, 38; Sendi abeftzale batek, 70; Bayon eftilari jaunak, 360,40; Viñas'taf Ebentzi'k 10; Norte'ko Bultzi-Gintza'ko talde-ordekoak, 907,05; "El Sitio" Eritegi'ko banakaritzakoak, 263,80; Muroa Gudal-etxekoak, 340,10; Azebal'daf Justino'k, 10; Markina inguruko guda-osalariak, 315; X. X.'k, 21; X. X.'k, 21; Garmendia'taf Andoni'k, 125.

Gutierrez Isuskitza'taf Imanol gudaria goratu beafean gera, "El Sitio" Eritegian bere burua osatu diotenean, 25 laurleko eman ditu Eritegi ortako beaf-izanak ornitzeko.



Gure gudariak, gudoñera bidian.

EGUNA
JEL

Lgo. urtia | 69'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. epalla 21'gna. igandea | 15 euneu

Euzkadi'k, bafuan eta kanpuan dauz areyuak. Gaiztoenak, bafuko areyuak dira.-Au eztogu aztu biar.

AZKENENGO IZPARRAK

Guadalajara'ko guda-oñetan españar eŕepublikar egazkiñak "Fiat" bi luŕera bota ditue

Egazkin oŕeik seireun eta beŕogetamar bonba jaurti eutsoezan bidian ikusi eben saildi bateri eta eun eta irurogetamabost izkillazkar (ametralladora) tiro baño geyago egin ebezan. - Larogei egazkin (areoplano) batera. - Austria eta Hungria adizkide. - Paxistak eŕiak ustuten. - Beste izpaŕak.

GUADALAJARA INGURUAN

Madrid.—Ona emen atzo-gabeko amaŕetan Guda-Zaingoak emandako izpaŕ-saila:

"Guadalajara'ko guda-oiñean. Arerioak makal eta nagi erantzun du. Jamari ta izkilua, ugari aŕapatu diote gudariak. Egundokoenik guda-izkilu geien kendu diote oraingo ontan. Guda-oiñak ikuskizunik gordiñena dagez; paxistaŕak igesi atzera egin dutenean, bidean utzi dituzten ainbat ildako ta guda-izkilu pila, ikaragaŕia da. Ildakoa ta guda-izkilua, zenbatu egin-ala laga dute; ondamendia ta eriotza; odolez goŕi guda-oin inguru guztia. Erkaldaŕak auŕera ta auŕera egin dute ta, iges baten, atzera ta atzera paxistaŕak. Alpeŕik da itzak -itz jardun eta egi gaŕatza gezurtatu nai izatea. Ez dute beingoan aztuko paxistaŕok oraingo zuŕa.

Guda-oin ontako beste inguruetan ez da aipatzekorik gertatu. Erkaidaŕen egazkiñak arerioari koldartu-erasotzeari dagokiote beti ere

Bidetxabal nagusian mila inguruko paxistaŕen taldea agertu zan eta Erkal-aldeko egazkiñak suagaka asi ziran. Ekin ortan, 650 bonba ta 175.000 ametraladoretako berunbil jaurti zituzten. Taldea zearo apurtu ta sakabanatuta gelditu zan.

Izugaŕizko italiaŕ pilak izan dute oraingo ontan eriotza. Irugaŕizkoa erkaldaŕen kendu dioten guda-izkilo pila ere.

Paxistaŕen egazkiñak kikilduta lotu ziran erkaldaŕenen auŕean. Bi "Fiat" jaurti zituzten onek eta geure guda-olñetara jausi zan euretako bat.

BATAREN LAGUN BESTEA

Budapest.—Horty itxasgoko arduradunarekin jardun-aldi luzea egin ondoren. Viena'ra etoŕi da Schuchsning Austria'ko Kantzileŕa. Jardun-aldi luze oŕen ondoren, Roma'ren asmoak ontzat emanaz, bi lateŕiok iritzi berdiña dutela ta Danubio'ko arazoa erabagitzeko auzoko guztiakin alkaŕ aŕtzeko gertu daudela esan zuan.

ZENBAT DANETARA?

Alejandria.—Ziuŕ-ziuŕ jakin da, ilaren amaselgaŕenez "Domine" paxistaŕ itxasontzia, 400 abisiniaŕ baŕuan zitualaiik, Portaad kaiatik igaro zana. 400 abisiniaŕok Franco'ren mendeko gudari-taldea ugaritzeko, ziran. Ceuta'ra dijoa itxas-ontzi ori, baita baŕukoak ere. Eta Ceuta'tik, nora? Franco'ren mendera. Nesaguaz eta Somalia'ko itxasbusteŕak igaroa da ontzi ori ta "karga disimulatzeko" -edo, 17 bidazti ere baŕuan dira.

AUSTRIA ETA HUNGRIA, ADIZKIDE

Budapets. — Ekonomi arazuetazko jardunak izan ditue lenengo izketaldian, Hungria'ko Gobernuak eta Schuchsning'ek. Aŕatsaldean, baŕiro batu ziran Gobernu bi oŕetako buruak.

PAXISTAŔAK EŔI-USTUTZEN

Sariñena.—Arerioak Aragoi-aldeko guda-oin inguruetako eŕi asko ustu ditu.

Erkaldaŕen artileriaren suagada bide, eŕiotan suteak ugari izan dira.

GORPUTZ-ILOBIRATZEA

Paris.—Atzo-goizean ilobiratu zuten Foch mariskala zanaren gorputza. Mariskala zanaren alargunaz gaiñera, politiku aundiki ta gudalburu ugari izan ziran iletetan.

BATZUK ILTZEN ETA BESTE BATZUK ARERASTEN

Londres.—Wiekers izkilu-oi entzutetsuak sei miloi libra esterlinako irabazia izan du.

BADAEZPADA ERE...

Amsterdam. — Holanda'ko Gobernuak, asaldariak holandaŕ itxasontziak itxas-bideak zabal utzi dagieten, lengoarekin eta bi itxaspeko edo submarinokin beste gudontzi bat bialdu duana, egia da.

INGELESAK GOGOŔ

Italiaŕen gudariak dirala-ta

Londres.—Gobernu ingelesak Mussolini'ri eskari gogoŕ bat egin dautsala jakin dogu gauŕ politika batzokietan. España'ko kai batzuetara ila onen 5'gn. italiaŕ gudari "gagozkoak" eldu ziralako da asaŕe idazki ori.

Ez-sartze komiteari adiraziko dautsala egiunea auste ori, diñotsa Gobernu ingelesak.

Oŕez ganera, Inglateŕa'k, Itunbena zio barik zapaldua izan dabe italiaŕen aldetik-eta, diplomazi bideż egokien diran neuŕiak artuko dituela.

BALKAN EŔIAK BATU?

Dinamarka'ren jokaldija

Copenhague. — Ego-aldeko lateŕian zaintzea dala-ta, Dinamarca'k artu duan jokabidea, ostegunez aztertu zuten Aldunetxean Iraukitzaile edo konserbadore alderdikide Venstre jaunak itz egin zuan eta, Stauning ministruak Lund'en azaldu zituan asmoak, Dinamarca ego-aldeko lateŕiak zaintzetik azke uztekoak, ez zirala ez danestaŕ ez ego-aldekoen asmoak, esan zuan; ez zuala egiz itz egin, alderdikidetasunez baiño. Beste lateŕiakin zaintze-arazo ta salerosketarako artuemanak ezartzeko, alegiñak-alegin egiteko eskatu zuan Venstre'k.

AUTUKA

Italia'k erantzungo ete dautsa Inglateŕa'ri Cadiz egin diran gudari legoŕeratzeatzaz?

Winchester'go abade-buruak zoroa deitu dautso Mussolini'ri. - Cesar'en antza barik Antiogus zoroarena dau.

Londres—Urtaŕilean Italia'k eta Ingelateŕa'k itunben bat egin ebenean lateŕi edo estadu oŕeik adizkidetuko zirala uste zanaŕen, adizkide antz aundirik ez da agiri bata-bestiagaitik egundokuak esaten dabez-ta.

Arañegun antzitik Ingelateŕa'ko Eleiza'ko agintaririk urtenenetariko dan Winchester'ko kanonigu-buruak Mussolini zorua zala esan eban argi ta garbi Haile Selassie'ren auŕean.

Italia'ren aurka gudatzen il ziranen gogo-alde ileta batzuk egiten ziñarduan kanonigu-Batza Buru oŕek.

"Italia'ko Estadu'ko agintari nagusi ori bere burua "Cesar" eginda dabil, baiña "Cesar"en baiño "zorua" eritxoen Asiria'ko enperadore Antiochus'en taju geiago dauka, esan eban jaun oŕek.

"Italiaŕak jatoŕiz bigunak eta bakezaleak dira. Etiopia'n, Libia'n eta España'n egin dabezan triskantzak, orain gizaldi bat turkiaŕak armeniaŕen artean egin ebezan odol-izuritzeen terdioko jira—esaten jaŕaitu eban—. Odol-izuritze edo erailketa oŕeik italiaŕ agintariok gizatasun goŕotoz jo ta dago zala darakuskue, bestela ezin ulertu daikez olako laŕegikeriok eta."

Italia dala ta olako jardunak ugari entzuten dira Ingelateŕa'n. Jardun uts ba-lira italiaŕ-izpaŕingien erantzun zataŕen batzuk sortzea besterik ez litzake lortuko.

Olako azalpenak Lateŕi biok alkaŕengandik aldendu ta asaŕetuago egiten dabez. Urte onen asikeran alkaŕtu agiñean, adizkidetzeko bidean genduzan, baiña aŕezkero beste bide batetik yuakuz.

Mataseoi Ingelateŕa'k eŕege bureskunde jaietara bere ordezkaria bialdu egiala Haile Selassie'ri eskatu eutsonean asi zan. Ingelateŕa'k Negus'arentzat agertu eban begiramen oŕek irakiten jaŕi ebazan Italia'ko izpaŕingiak eta Messina'n paxista zital talde batek Ingelateŕa'ko konsul-etxeari aŕika ekin eutsen.

Gero ostera Addis-Abeba'ko Graziani'ren jazokuna zala-ta, italiaŕak abisinaŕen artean egin eben triskantzeari burus Ingelateŕa'ko Aldundia'n galderak eta eztabaidak asi ziran. Gobernuak Addis Abeba'ko jazokun oŕen ondoren italiaŕak laŕegikeri ta nabarmenkeri aundiak egin ebezana egia zala adieraso eban Aldundi oŕetan. Ingelateŕa'ko Gobernua'k abisiniaŕei italiaŕok leporatu eutsezan zigoŕak, laŕegi zirala esan nai eban azalpen oŕetan.

Oŕa Ingelateŕa'n Italia'renganako asaŕea zelan piztu dau. Mussolini'k Libia'ra osterea egin dau. Ostera ori bere burua agertzeaŕen egin dau. Libia'n Islamdaŕen laguntzaile agertu da ta lagunduko dautsela agindu dautse Islamdaŕoi.

Europa'ko gudatea asi baiño lentxuago II Gilelma kaiseŕak orixe berori egin eban.

Oŕdiño oraintsu Cantorbury'ko arzobispuak Ingelateŕa'ko Aldundi Nagusia'n italiaŕak Addis-Abeba'n egin dabezan erailketakaŕen bere asaŕea agertu eban. Orain ostera beste kanonigu-buru batek Mussolini "zoro" etsi dau. Ingelateŕa'ko Eleiza'ko Agintari urten bi oŕein esanak Mussolini'ri zartada aundia damotsoe.

Ingelateŕa'ko Gobernua'ri ez yako komeni une laŕi oneitan Italia'kin guztiz asaŕetzea, baiña txarto esateok ezin eragotzi daikez, Italia'ri mingaŕi yako zanaren.

Oŕeik olan diralarik Ingelateŕa'k galdera batzuk egin dautsoz orain Italia'ri: "Ez sartzeko Batzordea"k gudariak España'ratutea gebendu ebanezkero edo jengo ilaren 20'gna. ezkero gudaririk España'ra bialdu daben galdetu dautso.

Ingelateŕa'ko gudontzi-agintariak Gibraltar'dik euren Gobernua'ri aitzen emon eutsenez epailaren 5'gn. italiaŕ gudari-taldeak Cadiz'eratu ziran.

Gudontzi-agintarion izpaŕok egi etsi da bez Ingelateŕa'n. Ingelateŕa'ko Gobernua'k Italia'k izpaŕ oŕeik nundik-nundik biribildu ta guzurpetuko ba'leuz nai leuke. Izpaŕok Italia'k guzuŕpetu ezin al-ba'daikez, "Ez sartzeko Batzordearen" jardun ta alegin guztiak alpeŕiko dirana agertzen da-ta, ta unerik laŕienean agertu be.

"Ez sartzeko Batzordea"n Italia'ren aurka salakuntza baŕiak egingo dabez Prantzia'ko edo Rusia'ko ordezkariak eta Itali'ko Gobernua'ren izenez salakuntzoi Dino Grandi, Italia'ko ordezkariak erantzun beaŕ izango dautse.

Grandi'k baiña erantzuten asi daitenean Rusia'ren eta Valencia'ko Gobernua'ren aurka salakuntza baŕiak egingo dauz ta matasa ta naste baŕiak ...tuko dira.

Ingelateŕa'ren "ez sartze" asmoak alpeŕik dirana adierasoten dauskue autu ta jardun oŕeik.

Oŕez gaiñera Ingelateŕa'ren eta Italia'ren arteko adizkidetasuna epelduaz dua ta oŕa beste kezka bat Ingelateŕa'ko Gobernua'rentzat.



Euzkotaŕen kistaŕtasun senduok amaika gurutz-aŕeŕ jaso dauz euzko-mendietan. Auŕian d'buzen an Sant i Legazpi'ko mendijan auŕkitzen da.

LANGILE AUZIA

"Chrysler" opoŕa

Michigan (Lateŕi - Batueta'n). — "Chrysler" beibil edo auto-oloen opoŕean dagozan langile guztiak espetxeratuteko agindu dau epaikari batek. "Chrysler"-ola oŕen baŕuan opoŕean 6.000 langile baiño geiago ei-dagoz.

Ertzaiñak ola baŕuan dagozanak ateratera juan dagizanean ertzaiñen eta langileen artean buŕukeren bat sortuko ete dan bilduŕa dago.

Langileak burdin-makila ta pistolekin zain dagoz, ta asaŕe dira.

Euzkadi'ko guda-oiñetan

Gipuzkoa'koan

Geure artileriak Kalamua ta San Miguel'era arerioari suagaka. Sutaustegi edo polvorin bat lertu ta basetxe bat apurtu zioten. Basetxean eŕekete ugari zeuden.

Eloŕio-aldean ere gure gudariak egoki jokatu zuten. Aŕasate'ko geltokia eta eŕeketeen basetxe bat zuzen-zuzen jo zuten. Elgeta'koan, batak eta besteak tiroka.

Araba'koan

Otxandiano'n, alkaŕen arteko zunbaketa. Aramayona'n ere berdin. Guretaŕen kañoiak, Ubideа'tik, ederki zuŕatu zituan Mekoleta, Uŕunaga, Naŕete, Cestafe eta Saismendi'n paxistaŕak dituzten egon-lekuak.

Burgos'koan

San Martin eta Urkiano'ra suagaka jardun dute guretaŕak. Egon-lekurik sendotzen ez zioten utzi arerioari ta len zituzten batzuk apurtu egin zizkioten.

Santander

AUZIA

Santander.—Zemendia'ren 24 espetxeratu ebezan Crescencio Gonzales Armando Rodriguez, Inocencio Martin eta Vidal Perez palankisten eta España Gudarosteko kabo zan Julio Cortipiela'ren auzia izan zan atzo epaitegian. Eŕikoi-Epailariak emon eben epaia.

Pereira lege-gizonak aldeztu ebazan auzipetuok.

Eŕikoi-Epailariak aske itxi eben kabuoi ta beste auzipetuak ogeitamaŕ urteko espetxeagaz zigoŕtu ebazan.

ERBESTERA JUATEKO URTEPIDE-TXARTELAK

Santander.—Erbestera juan nai dabenak erbesterako urtepide-txartela Eŕi Zaintza'ko arduradun'ari eskatu dagioela erabagi dabe.

MEXIKO'REN OMENEZ

Santander. — Mexiko'ren omenez datoŕen astearteż antzerki-jaia ta mitiña izango dira. Jai oŕetan gobernadore Nagusia, be, izango da.

"Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikua'rentzat" ixil. du bere ...an ol-eban Arana-Goiri gure irakasliak.

Esaera au abuan, goguan eta bijotzian euki biaŕ dogu, beti ta beti.